

# JAKIN

## EUSKAL HERRIKO IRU HEREJE

Baroja'ren euskaltasuna. Pio'ren euskal-nortasuna eta euskal-kulturaganako bere maitasuna. — Unamuno'ren euskal-izakerari ohar batzuek. Migel'en ideien ta auzien azterketa bat. — Jose Maria Salaberria. Gizona, Idazlea. Bere euskal-izatea.

ANDONI ITURRIA. MIGEL PELAY OROZKO. JUAN SAN MARTIN.

### NOTA LABURRAK

Luther King, eziñaren ameslari? — Ted, hartzak ik lastargia. — Robert Kennedy: esperantza bat. — Joan Manuel Serrat. — Leiaketa bat. — Etxegintzarako lurren fiskalizazioa. — Eliza ta biolentzia. — Kristaudiaren pekatua.

### KRONIKAK

Estremismoen pizkundea: NPD ... ..	JOSE AZURMENDI
Zientzi oihartzunak ... ..	XABIER KINTANA
Konbikzioa eta erresponsabilitatea ... ..	SAIZARBITORIA

### AGIRIAK

Frantzia'ko komunista ta sozialisten otsaillaren 24'ko Agiria.

### LIBURUAK

Creer es comprometerse ... .. JOSE MARIA GONZALEZ RUIZ

### OHARRAK

## LIBURUAK

### **EUROPA.—Jakinariek.**

10 saiakera interesgarri Europear Alkartasunaren gain.

### **FILOSOFIAREN KONDAIRA I.—Jakinariek.**

Filosofiaren Kondaira osoa euskeraz eman nahi luken bildumaren lehen zenbakia.

### **JAINKOA.—Kristau Fedearen Sustraiak.—L. Villasante.**

Sinismenaren zergaitiak eta oiñarri beharrekoak. Teodizearen argitan.

### **LAU EBANJELIOAK.—Mendizabal-Goitia.**

Goxoki ta herrikoi emanak. Goitia eskritulariaren ohar baliotsuekin.

### **EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.**

Euskal Verboari buruz gaurdaino egin den azterketarik sakonena ta garbiena.

### **LAS 7 LECCIONES DE EUSKAL-ADITZA.—Joseba Intxausti.**

«Euskal-Aditza»-ren osagarri eta laburpen argigarria.

### **ELORRI.—Bitoriano Gandiaga.**

Olerkiak. 1964-ko «Jose Antonio Agirre Saria», azken lau urteetako euskal liburu onena bezela saritua, alegia.

### **EUSKERA.—Iñazio Omaetxebarria.**

Gure hizkuntzaren azterketa bat, euskera irakasteko egia.

---

10 %-ko deskuentoarekin hartuko dituzte liburuok JAKIN'en arpedunak.

**ESKATU: Dirección de JAKIN - Arantzazu - Oñate (Guipúzcoa)**

# ARKIBIDEA

## EUSKAL HERRIKO IRU HEREJE

M. PELAY OROZKO: Baroja'ren euskaltasuna... ..	8
J. SAN MARTIN: Unamuno'ren euskal izakera ... ..	17
A. ITURRIA: Jose Maria Salaberria ... ..	24

## NOTA LABURRAK

Luther King, eziñaren ameslari? — Ted, hartzak ik lastargia...!  
— Robert Kennedy; esperantza bat. — Joan Manuel Serrat. —  
Leiaketa bat. — Etxegintzarako lurren fiskalizazioa. — Eliza ta  
biolentzia. — Kristaudiaren pekatua.

Rikardo ARREGI. Andoni ITURRIA. Andoni LEKUONA. Xabier  
LETE. Karlos SANTAMARIA. Joan Mari TORREALDAY

## KRONIKAK

JOSE AZURMENDI: Estremismoen pizkundea: NPD ... ..	46
XABIER KINTANA: Zientzi oihartzunak ... ..	51
SAIZARBITORIA: Konbikzioa eta erresponsabilitatea ... ..	54

## AGIRIAK

Frantzia'ko komunista ta sozialisten otsaillaren 24'ko agiria	58
---	----

## LIBURUAK

J. M. GONZALEZ RUIZ: Creer es comprometerse ... ..	65
--	----

## OHARRAK

# JAKIN

ZUZENDARIA: JOAN MARI TORREALDAY

ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARRREN ARDURAPEAN ARGITARATUA

12 URTEA — 30 ZENBAKIA — ARANTZAZU, OÑATE — EPAILLA-JORRAILLA

---

*Batasunaren erlojuak jo du.*

*Azken urteotan, batasunaz asko arduratu da euskalduna. Ardurara honek sortutako giroari erantzunaz, Euskaltzaindiak billera bat ospatu behar du Batasunari buruzko erabaki batzuk artzeko. Gure txaloak.*

*Baiña, Euskaltzaindiak pausurik eman nahi baldin badu, idazle onoiñak behar ditu. Ez da iñorentzat sekretu idazlearen eskue-tan dagoela erabaki hauen indar-azia. Ta naiz lotsagarri izan, ezta ere ezin dezakegu ahaztu jaió aurretik hil daitekeala Batasun-asmohau, oraiñarteko borondate oneko anitz alegin bezela. Euskaldunok ustekoia baigera, gure-geure iritzi-zaleak. Ez ala? Eta euskeraren pontu berezi hontan, euskeraren batasunari dagokion hontan-txe, hain zuzen, beste ezertan baiño areago, bakoitzak daukaon geure laga-eziñeko iritzi ta egikerak. Hau guztiau aberastasun bat ditekealarik, ito-bide bat ere ba da, usteak erdia ustela du-ta, esae-ra zahar harek dionex.*

Batasunaren garrantzia alde batetik, eta idazlearen beharrezko-tasuna bestetik, ikusiaz, iritzi ta jardunera desberdin hauen artean JAKIN'en zenbaki bat osatzea pentsatu dugu. Onartuak ala exta-baituak izan ditezken iritzi ta jardunerak, noski. Baiña uste dugu euskeraren bizitza maite dutenek oro jasoko dituztela.

Euskeraren bizitza behar dugu; ez nahi bakarrik, behar baiño. Hau oiñarriztat harturik, beste ustekizun bat ere ba dugu: euskera biziko bada, batuta izango dala. Argiago azalduaz: batasuna euskeraren iraupenerako baldintza dala, nahi-ta-nahi-ezko kondizioa. Gure ustez, batasunaren arazoa aukeraketa gogor batean aurkeztu behar dugu, errealitateak berak planteatzen digun aukeraketan hain zuzen ere: euskera bai ala euskera ez.

Ba dakigu batasun hitza entzute soilak dardarrean jartzen due-la ikaraz bat baiño gehiago. «Batasun» goiburuaeren itzalpean erail-keta asko gertatu baidira kondaira zear. Hemen ere erailketa hoie-tako baten bildur direla batzuk ematen du. Hori dala-ta, batasun honen adieraznaia azal dedin alegin bat egin beharko dugu.

Gure batasuna literatur-batasuna da. Ez du batasun honek ez herri-hizkuntzarik, ez ballada bakoitzeko berezitasunik, ez euskal kirik, besterik gabe, ezabatzen.

Askoren ustez, berezitasunak oro batasun honek zanpatu be-litu oraingoan. Ez da holakorik. Herri-hizkuntzak ez du deus gal-duko, ez du galdu behar, batasun-arazo hau behar dan moduan era-maten baldin bada. Herri-hizkuntzak, zergatik ez, bere partea izan-go du literaturan, beste hizkuntzetan daukana. Eskatzen dugun batasun hau kulturarako ta irakas-liburuetarako erabiliko litzake.

Lehen aipatu dugunex, ba, batasun hau hizkuntza landuaren batasuna da.

Herri baten prolemak, herri horren kondizionamentuan ulertu behar badira, lehengo bera birresango dugu: euskeraren heriotza-ren aurrean egiten dugun aukerapena dala batasunaren hau. Hiz-kuntza aldetik begiraturik, ba dakigu ez dala batasuna bentaja ba-karra; hor dira argitasuna, jatortasuna, berezitasuna. Are gehiago: batasuna kanpotiko bentaja da. Hala ere, euskerak, iraungo badu, beharrezkoa du batasuna.

Izan ere, batasunikan gabe nola argitara litezke tekstu-libu-

ruak? Hiru edo lau euskalkietan argitaratuko ote ditugu, ala? Diru-aldetik ere gaitza baiño eziñagoa dala begien aurrean dago. Ikastolak prolema hau funski bizi dute, nola ez. Eta bigarren ikaskizunera baldin bagoaz, zailtasuna ezin-garaituagoa da oraindik. Ta parregarri ere bai, etxeko ta kanpokoan artean, hain herri txikia galararik alkar ulertu ezinda ibilli behar honegatik. Ta Unibersidadea dugunerako? Filosofi, zientzi, kondaira edo diralako liburuak argitaratu behar ditugunean, batasunetik kanpoko soluziorik ez dugu ikusten.

Ekonomi-aldetik, batasunarekin expada, sentidurik ez daukan auzi honek, jakintza-aldetik begiraturik ez dauka ez buru ta ez buztanik.

«Azia ta ezia» behar genuela gure izkuntza, proposatzen genun gure 29<sup>gn</sup>. zerbakiaren hasieran, zeren kultur-esparruan ez daukagu, zoritxarrez, ez azia ta ez ezia.

JAKIN'en idazten dugunok ba daukagu honen berri: jakintza-idazlan mota batzuk adierazi nahi ditugunean, luma eta sormena gogortu eta moteldu bide egiten zaizkigula. Tresna dan neurrian, euskera bizkortu egin behar dugu, arindu.

Herri-hizkuntzazalerenak nahi dituan berezitasun guztiak iraun ditzatela. Baiña ez dezagun abaztu euskal idazleok gure ideiak beharrezko xeheatasun guztiakin adierazteko eskubidea daukagula, ta hortarako egoki dan euskal-hizkuntza bat nahi dugula, zailtasunikan gabe alkar entenitzeko modukoa, autoitzultzen ibilli beharrean, gaurko ta geroko ideiak oro aditzera eman ditzazkean hizkuntza bat.

Gure bigarren oiñarria hauxe da: Baldin jakintza landu bat nahi badugu, egiazko irakasbide bat eta benetako jakintza-aurre-rapen bat euskeraz nahi baditugu, beharrezkoa da, behar-beharrezkoa, intelektual, ikasle ta pertsona eskolatuentzat, arin bai arin, hiztegiaren eta aditzaren batasuna erdieste.

Frogatua dago gaurko mundu honen egoeran (egoera ez da, bigidura baiño), kultura gabeko hizkuntza bat, laister barru, hilla dala.

Beraz, euskeraren batasuna nahi ez duenak, euskeraren heriotza nahi duela uste dugu. Ez dago, gaur, erdiko biderik. Eta euske-

raren batasun honi eragozpenak bideratzen dizkiona, gure etsaia da. Etsai hauek dira agian kanpokoak baiño txarragoak eta maltzurragoak.

Batasun hau nola lortu, ordea? Zenbat urrats eman beharko? Zenbat epetan burutuko dugun? Galde hauen erabakia adieraztea ez dagokigu orain.

JAKIN'en zenbaki bat eskeiñiko diogu Batasunari. Euskaltzaindiaren billera nagusia baiño lehen. Zenbaki hortan erruz erabiliko dugu gai hori bere lerro nagusiak aztertuz eta, gure ustez, eman behar liraken bideak azalduaz.

Batasunarekin, euskeraren bizitza nahi dugu. Batasuna ukatzen duena, ez-jakin bat da, eta euskaldun txarra. Gogorak gerala uste duenari zera esanen diogu, alegia, gure Herriaren gaurko egoera ikusiaz, ezin dezakegula biotz-biguñagoz holakoa epaitu. Denborajoanean, arrazaioa gurea izango da.

Euskera behar dugu, berriz diogu. Euskera bizia, landua, «aziatu ezia».

Euskera behar dugulako, batasuna behar dugu.

Batasunak salbatuko gaitu.

JAKIN

## 98'garren belaunaldiko euskaldunak

*Literatur-belaunaldi hau aitatu orduko, Euskalerriko seme batzuek datozkigu burura: Unamuno, Baroja, Maeztu, Salaverria entzute haindikoen artean.*

*Hauen inportantzia literatur-soroan era askotara, sakon eta luze aztertua izan da han eta hemen. JAKIN'en asmoa ez da lur hau goldatzea. Beste begiratu baten azpian ikusi nahi ditu: euskal-izatearen zati bezela eta era berean euskal-nortasunaren aurrean.*

### EUSKALERRIKOAK

*Dana-dala, hau ezin ukatu, Euskalerrian jaino ziralako eta Euskalerriko giroan azi.*

*Besterik gabe, nortasun baten jabe dira. Beren izakeran ta bere jokaeretan, halako «zer» berezi bat daramate. Ikusten dutena ikusi, aztertzen dutena aztertu, esaten dutena esan, bai Euskalerriko ta bai kanpoko gauzetaz, «zer» berezi batekin —euskaldun begiekin?— ikusi, aztertu ta esanak dira. Nahi edo ez, ondo Euskalerriko ditugu.*

*Bere jokaeretan ere berdintsu. Hauen idazlanak, nabiz ta erderaz egiñak izan, euskal-pentsakera daramate eta euskal-gaiak ikuitzen dituztenean, euskal-giroak eragiñak dira dudarik gabe. Nabiz Euskeraren alde egin nabiz kontra, euskal-fenomenoaren aurrean ez dira beñere arrotz, parte artzen dute eta berotasun haundienerekin.*



Norbaitek galdetu izan du: bai ote dago euskaldunagorik ezer Barojaren «La Leyenda de Juan de Alzate» baiño? Santi de Andia edo Avinareta baiño personaje euskaldunagorik bai al-dago? Euskaldun-izatearen norgeiagoka jartzera ez goaz, baiño norbait horrek egin zituan galderak oiñarririk gabeak diranik ezin esan.

## EUSKALDUN INTELEKTUALAK

Bai, intelektualak, jakintsu gehiegirik ez bait-dugu izan, zoritxarrez, gure artean. «Intelektualetik» jakintsura dagon aldia, jakintza erantsiatik, postizuatik, jakintza jatorrera dagon aldi berdiña da. Jatorra, hau da, ez soilki buruz ikasia, baizik-eta bakoitzak bere muiñaren muñ ta mamiaren mami bihurtua. Gure kasuan, euskaldundua, mami ta azalez, pentsakeraz ta hizkuntzaz.

Gure asmoa ez da iñor juzgatzea, hainbat gutxiago gaitzestea. Ez horixe. Gauzak ahalik-eta otz eta paketsuen ikusi nahi ditugu. Benetan orain dala 50 urteko gizonak gaurko neurriekin juzgatzeko eskubiderik ez dago. 98'garrengo belaunaldikoak beste giro batean, beste kultura batean bizi izan ziran eta orduko moldeakin neurtu behar dira.

Baña otztasun horrekin berakin hauxe esan behar dugu: euskeraganako zaletasunik etzutela azaldu. Jakiña, hau hola esatea xinplekeri bat besterik ez da, orduko giroa aztutzen bada behintzat.

Ondo dakigu orduko euskera aurtzaroan zegola, sukaldeko ta baserriko artuemanetako bakarrik balio zula. «Intelektualak» ziranak eta beren buruak honela azaldu nahi zutenak, beste hizkuntza batzuek erabilli behar zituzten, dudik ez, beren ikasketak egiteko eta beren lanak aurrera ateratzeko. Hau guzia barkagarri zaie belaunaldi hontakoeri.

Baiña hizkuntza, gauza bizi bat da. Jaio, azi ta heriotzaren mende. Ta Euskera, egia esan, indarrean etzegon behintzat jakintza soroan. Gaxotasunak joa al zegon? Heriotz-zorian?

Errezagoa da, nahiz ta askotan gogorra izan, heriotz-etsia artu ta illetak preparatzea, illeta ospetsuak gaiñera. Hemendik begiratuturik eta gaurko begiekin ikusita, badirudi hau izan zala 98'garren

*belaunaldiko euskaldunen jokaera. Izan ere eritasun luze baten aurrean nor ez da bildurtzen, batez ere norberak bere bizkar erortzen ikusten baditu gaxoaren karga guziak? Horrelako zerbait gertatu ote zan gizon hauekin? Dana-dala, sendagaiak billatu orde, illetak preparatzea pentsatu zuten. Haiek gorde ziran ta Euskeraren illetak ikusteko gaude oraindik.*

## EUSKALDUN JAKINTSUAK

*Gaixo dagon Euskerak —ta ez Euskera gaixoak— beste jokera bat eskatzen du; konpromiso bat, sinismen bat, kuraia bat.*

*Ba dirudi gaurko egunean, giroak eraginda edo, euskaldun jakintsuak ba datoxtela, aro berri baten aurrean gaudela. Hala bedi. Ikasten dabiltzanak, nahiz Euskalerritik kanpo egon, Euskalerrira begira bizi dirala, euskera lantzen dutela. Ikasitakoen artean ere —gogozko bidean aldaparik ez— nahiz ta urtetan aurrera joan, euskera ikasitakoak ezagutze ditugu. Exemplo ederrik ba dugu gure artean.*

*Ta hauxe izan da, bai ta ere, JAKIN'en jokua. Euskalerria ta Euskera dauden bezela artu —bere akats ta guzti, mitoak utzita— ta sinismenez lanari ekin. Horrela 98'garren balaunaldiko euskaldunen aurrean, hauxe dugu esan beharra: Hoi en euskalduntasuna aitortu —naiz ta elbarra izan— eta gaurkoeri pentsaerazi.*

*Hitz batean esateko, euskaldun intelektual ta jakintsueri dei zorrotz bat egin. Izan ere Mitxelana'kin bat gatoz gai honetan: Erderaz egingo luken Herria ez litzake Euskalerria izango.*

JAKIN

## *Baroja'ren euskaltasuna*

MIGEL PELAY OROZKO'K

Ba du Pio Baroja,ren bizitzak kinka bat guztiz adierazgarria eta funtsezkoa ere, ene gardiz, eta, alere, bere zenbait istudiatzaille, komentarista eta bizitz-edestzailleeri konturagabean pasa zaiena. Nobelagille-gaia, umetzaroan —ume zela utzi zuen Donosti— eta gaztaroan geldigabe alde batetik bestera ibilli ondoren, —Donosti'tik Iruña'ra; Iruña'tik Madril'era; Madril'tik Valencia'ra; Valencia'tik berriro Madril'era...— Gipuzkoa'ra itzultzen da egun batean, ogeita bat urteko mediku ospetsu billakaturik. Diplomaren tinta oraindik bustia zuelarik, ur-zale, eri edo mundutar, jende mota oroetakoak artzera jarria dagoen Urola'ko urerri Zestua'ra igortzen dute. Baroja gazteak, bere jaioterritik deserrotua, bidezko denez, aurrekoengandik jasotako euskera erdi-galdua, eta berri ta ez-ezagun gertatzen zaion erriaren jite eta oituraekiko zaltetan geiegririk gabe, arrotz xamar ikusten du bere burua, desbidetua. Naiko lan ematen dio itxi eta misterioitsu sumatzen duen gizarte aren ariman sartzeak. Arik eta bere naaste guztiak argitu eta bere ukaeziñezko euskal-izatearen sustraiak agerian jarriko dizkion trauma psikiko bat gertatzen den binbitartean. Bere libururik egiatienean, latzenean, zakarrenean bearbada, bere **Juventud**, **egolatria** ikaragarrian emango digu, bere-bere eta arras euskaldun ere duen laburpenez, bere erriarekiko berrarkitzearen edespena. «Zestua'n asi nintzen nere burua euskaldun sentitzen —dio artezki— eta han jaso nun neretzat galduta zegoen nere endaren arimuturra».

Endaren arimuturra. Geroago Europa'n ez ezik, mundu guztian ere reakzio guztitarikoak eta sutuak piztuko dituen itz hau, enda, Baroja'k zentzurik zeatzenean eta bedegarrenean darabilki. Baiñan nolatan ez den faltako ezetz pentsatuko duenik: adieraz-ots onek, Barojaren aoan,

ezin zezakeala beste adierazkirik izan sentimentu utsarena baizik, seiñalatuko dugu guztiok endaren baten ondorio izan ez ezik, gure buruaren, sudurraren edo itzegiteko edo parregiteko eraren forma bera ere, mendez-mende datorren prozesu baten ondorio direla. Ildo berean, baita ere, zion gure keifu guztiak aspaldiko berberak ditugula berriro gure nobelagilllearentzat egifiak.

Ez zitzaion izkututzen, noski, jatorri-arazoa sakon eta xeapen guztiz istudiatzearen zailtasuna, alde, aztertzaileak geien ere lor zezakeana, jasotako zeaztasunak errex okertu ditezkelako, sozial maillako zenbait arazo direla kausa, geientsuñetan.

Beti izan zitzaiola interesgarri enda, gizoneri unki zitzailela nola animalieri, aitortzen zuen Baroja'k. Bare familiko abar diferenteetaz aritzean, Nessi'tarrak, Zornoza'tarrak eta Oyarzabal'tarrak iparraldekoak izango zirela iruditzen zitzaion, au da begi urdin eta ille oriko jendea (1); Baroja ta Arrieta'tarrak, berriz, zeltiko bezala ezagutzen diren tipokoak; Goñi'tarrak, gurutzadu beltxeran eta rubioak; eta Alzate'tarrak, beltxeran eta begi beltz, geientsuen.

Bere apelliduen iturburuak komentatuaz —bost gipuzkoar, bi napartar, bat bizkaitar eta bat lonbardotar— apellidu bakoitzak aurrekoek bizi izan ziraneko bazter edo lurraldea errepresenta zezakeanaren posibletasunaz oarazten zuen eta indibiduoari buruz bakoitzak eragin nabarmen bat izanen zuela pentsatzera iritxi zen.

Premisa auetan oin arturik Pio jaunak bere geografi-paraleloa Europa'ko europatarrenak ziren Alpes eta Pirineos artan zuela zion, beren galfetik Asia eta azpitik Afrika muturra ageri dutenez. Onela, bere burua Pirineos'i atxikia eta Alpes'ko txertuarekin artxieuropeotzat jotzen zuen.

Egia esan, bere artxieuropeotasunaren baiezipen onek, naiz, argi ageri zanez, zeazgabea, jeneral xamarra eta jostalaria ere izan, marmar eta ezin ikusiak leporatu zizkion. Ortega y Gasset'i, adibidez, esaera gaizki erori zitzaion. Ez zuen disimulatu aal izan. Madariaga'tar Salbador'i, gizon minberakoiagoa eta susmaberagoa izaki, irain astun gerta zitzaion. Ainbateraiño, ze batek pentsatzen du ez ote zitzaion ordutik sortu bere antieuskalzaletasun arraro, pozoidun eta ezin-ikusi ura.

Ikusten danez, jende guztia da sentikor egiten enda edo etnia-

(1) Bere literaturako euskal notin geientsuanak —Tximista kapitana, Ollarra, Errotabide, Machain, et. ab.— ille ori eta begi-urdin ziren, etni-talde gogozkoena bereztat auxa zela pentsatzera erakarriko ginduzkana.

kuextio auetan. Istantean dire konplejuk, mesfidantzak eta samindurak agertzen. Tabu modernu bat dela esan dezakegu, oraindik oraingo diren nazisten ankerkerien oroipenarekin bihiagotua. Ez dago txantxetan ibiltzerik puntu onetan.

Asierako gaiera itzuliaz, esango dugu Euskal Herria'k, berea zuela-ko eta baita ere bere astapenen ezezagunagatik eta bere izkuntza inguruko errienetik guztiz bereizia delako, interes bizia piztu ziola Baroja'ri bere baitan, zeñiek bere poesi, nobela ta saio-orrialderik onentxoena eskeiñi zizkion.

Pio jaunaren iritziz, esan diteke zerbait adierazgarri sorrera gutxi-geitxo ezaguna izan eta histori-daturen bat utzi errieri buruz, ez ordea, euskaldunak bezala, sorrera ezezaguna eta misteriotsua dutenetaz eta, gañera, erri kulturadun bezala jokatzera iritxi ez diranetaz.

Naiz antropologi naiz kultura aldetik aztertu, euskal enda gordailu bat zela, zion Baroja'k. Onela, Jazinto Grau'ren esana: bera (Pio) ez zela euskaldun alegia, naiko komiku eta arrigarri aurkitzen zuen.

«Ez dakit au nola antzeman ditekean —komentatzen zuen bere Oroi-penetan— ezta zer dala-ta bear duen jakin Grau jaunak besteok ez dakiguna, ots, euskaldun izatea zer den, eginkizun kolektibo ta bedegar bat izan ez duten beste erri anitzeri buruz ez dakigunez. Kataluniatar eta balenziatarak ba dute zeatz gabeko joera jeneral bat zerbait berdiña. damaiena. Mediterraneo'ko margolari eta idazleen artean ematen da jite ori; euskaldunen artean, ez. Auek, ikusten denez, ez dute albokoekin kidekotasunik, direla santandertar, napar edo gaztelar, baiña beraien arteko batasun zantua ez da nabaitzen».

Baroja'ren lanaren zear beti somatzen da Europa-iparraldeko erriekiko begikotasun edo atxikimendua. Eta arrigarrien dena, berak aitortu zuenez, erdi txantxetan bere liburu **Juventud, egolatria**'n aditzera emandako tesisa, zion, urteen buru irmotzen joan zela eta Prehistoriako aztarnetan egiztatu zitekeanez, frantzi-kantabritar lurraldeak (or sartzan da euskalduna ere) etnia-loturik izan zituela, ez soillik Europa-erdiko zenbait erriekin, baita laponetar iparraldekoekin ere. Mediterraneo'ko enda, ostera, kapsiensekin zerikusian zegoen; onek, bere al-

---

(1) J. Grau'ren liburuak «Unamuno y la España de su tiempo» zuen izenpuru eta Buenos Aires'en argitaratua izan zen, 1934'ko otsaillean, Kulturaren aldeko espaini-arjentinatar Zaindaritzagatik. Nere liburutegian dut. Grau'k zion Baroja euskaldun ez zenik, baizik eta euskaldun faltsotua zela, aundiputzago eta bitxiago gertatzen den baiezipena.

detik, ba zituen izan zenbait lotura Sahara'ko erriekin eta erri hauen aitzetako arteak (gizon eiztarien figurak) boskimanoak oroitarazten zituen.

Leen esan denez Pio jaunaren artxieuropeotasunarekin geientxoan asarretu zirenetako batek, Madariaga'tar Salbador'ek gaur Europa bezala entenitzen dena Izadia ulertzeraiñoko aalegin ordenatu bat egi-teko gauza den adimen konzientzidun edo kontzientzigabedun batean datzala batipat, zion.

Pio jaunak iardesten zion, bere aldetik, Izadiaren ulerpen billa dabilen adimena filosofilariarená dela, eta ortarako ez duela europatar izan bearrik. Eta osteratzen zion europatarren jiteak ez zirela soilki kulturaren ondorio, baizik eta baita soñarenak, izpirituarenak eta bizitzarenak ere.

Baltsaki, Baroja'ren tesisa, europatarrari zegokionetik, inguratzen zuten etni-nukleo bien jiteetatik (Sortalde eta Iparraldean oriengandik sortu ziren mogolak, Egoaldean, afrikatarrengandik urbil ziren semitak, ain zuzen) astantzen zen lurralde zaarraren emaitz bat zela litzake. Keyserling'go kondeak esana: endaeke erreki sortzen zirelako garrantzirik ez zutela, alegia. Baroja'k aski zentzugabe eta umekoi aurkitzen zuen. Egia eta gutxi ezagunetan gertatzen zela, zion.

Ametitzen zuen, ostera, endak, elkarrengandik urbil zeudenak batipat, oso naastuak egongo zirela prehistoria garaietatik eta guztiz nekeza gertatu bear zuela bakoitzaren jite ta zantzu nabarmenak zeaztasun apur batekin adieraztea.

Euskal Erria'ri berriro elduaz, iru bedegartasun funtsezko markatzen zituen: ele zaarrak, musika ta mariñel abenturakoia. Uste zuen baita ere batu zekiekela iru bedegartasun aueri Mitxelet'ek bere liburu «La Sorcière»-n atal bat dedikatu zion bertako sorginkerien yazoera. Eta, baitipat, mundu guztiko izkuntzalari anitzentzat zorabiozko buru-auste izan den euskera misterioitsuarena.

Euskaltasunari dagokion aldetik, Baroja'ren ikuspegia guztiz zen desberdiña Unamuno'renetik. Pio jaunak zionez, euskaltasunak garrantzi izan edo ez, baiña benetan eragin nai bazitzaion, leendabiziko egin-bearra latin kontrako kutsu bat ematea zen. Gaiñera zion prexiko izango zela flamenkotarrek Beljika'n valon-eragiñaren kontra karrean ezarritako mogimenduaren antzeko zerbait sortzea.

Unamuno'rentzat guzti au disparate utsa zen.

Bizkaitar irakasleak, bere norberekeri zoro ta itxu arekin, gogo zue-

na euskaltasun berekoi, unamunotar eta salmantinotar bat zela, zion Baroja'k. Pio jaunari ez zitzaion buruan sartzen euskaltasun gabeko euskaltasunik, euskera, ala naiez, bazter laga zezakean euskaltasun bat.

Baroja'k edesten du, bere leenengo liburu «Vidas sombrías» argitaratu zueneko artan, bertan azaltzen den ipuietako bat itz neurtuz jartzea aitatu ziola Unamuno'k.

Baroja'ri aolku burugabea iruditu zitzaion, beste zenbait arrazoiren artean, bere burua itz zentzu motxakotzak zeukalako, metrikarako joera eta baldintza gabekoa izanez landa.

Alaz ere, ainbesterañoko izan zen nunbait Unamuno'ren temaketa, zein, finean, Pio jaunak esan ziola:

«Nik, benetan biziki sentitzen dutan euskal alorreko zerbait bihotzko, xamur eta lirikurik idatzi bear banu, euskerazko bertsoak idatziko nituzke, azken berdintzarik eskasenarekin eta ditekean latin-zentzurik urrienarekin».

Pentsatzekoa zenez, Unamuno eskandalizatu egin zen eta baita ere esan burugabekeri eta zentzugabekeri bat zela ori. Eta ortan gelditu zen arazoa. Ez zen geiago aitatu.

Ezta ere, Pio jauna ez zetorren ados aldikide zituen Salaverria eta Maeztu'ren ideia eta yoranekin. Ezin zituela ulertu beren erriarekiko gogo berotasun ziralako aiek, zion Salaverria ta beste zenbait idazle eta artistaetaz. «Zarata haundiko erretorika-zaleak dira —idazten zuen «El escritor segun él y segun los críticos» liburuan— enfasis, zeru urdin, itxaso baita urdin, ego aize, teillatu lauko etxe, ego alderdieta-flora eta zezen jaialdi zaleak. Gauzak, onela, ze balio du olakoentzat euskaltasunak? Gusto oiek direla, askozaz bidezkoago derizkiot Sevilla, Valencia edo Alicante'rekiko zoraldia sentitzeari»

Baita ere zion, bere euskaltasuna baietz, bidezko zela, erriaren be-reiztasun zirenak tiratzen ziotelako, bertako egurats busti eta illunak, esate baterako, paisaje berdeak, ariztegi, gaztaiñadi eta pagadiak, eta, apartegi, familietan oraindik somatzen den ama-aginte-kutsu alako batak, latinotarren artean geratzen den aita-agintearen kontrast. «Bidezko da ni euskalzale izatea —baieztatzen zuen laburpenez—; ez da bidezko, ordea, oiek izatea».

Unamuno, Maeztu, Salaverria, Zuloaga eta Euskal Erria'n jaiotako beste idazle ta margolari askotxori euskaldun izaera ukatzen zion —artistikoki itzegiñaz, noski— eta Baroja berak, ez zion, ostera, uka-

tzen Etxeberria, Arteta eta Regoyos'i, onoko hau jaiotzez Asturias'ko izanarren.

ñiortxori begi on izatekotan, ordea, A. Larramendi'ri zion. Andoaindar jesuitak aristokraziari buruz razista antzeko den bere tesisa agertzean, gipuzkoarrari bere noblezia ez datorkiola erregeengandik seiñalatuaz, baizik eta, judutar, nairu, godo, et. abarrekin kutsutu ez izanagatik, bere etnia soillaren noblezia dela, Pio'k bere konformidade osoa aitortzen dio. Larramendi'rentzat zapatero edo nekazari edonork, gipuzkoarra bada, beste errikide edozeinek aiñako noblezia du, izan dedilla izan dedaña onen aginte edo mailla. Errialde barrutiko aristokraziaren konzetu «demokratiku» bat litzake, ba, berarena, zillegi bazait itz paradójiku au. Eta Pio jauna, diodanez, ados dator jesuitaren tesisarekin, latifundioan sortzea duten ingles, prantzes, aleman eta beste europatar erri askoetako aristokrazien kontrara, euskal noblezia bere itxikera eta baserriko ondasun urrien ondorio delarik, Larramendi soziologi eta etnika aldetik egian dagoela bere alde aipatuaz. Beste ainsteste gertatzen da, baita, Espaiñi'ko aristokraziarekin, Andaluzia eta Castilla'n lurralde jabetza aundiak ematen ziren ezkerero.

Onekin esan nai da Euskal Erria'n zegoena batez ere zaldungoa zela, au da, razista ala olako konzetu moral eta sikologikoa, atzerritar aristokraziaren sozial eta apaingarrirenarekin begiz-begi.

Baroja'ren nobelagintzako euskal tematika guztiz da ezaguna lurbera osoan eta leku ooregarri bat du literatura unibersalean. Ez dagokigu, ordea, orain gai honi atxikitzea. Ortan bete-betean sartu gabe, bada, esanen dugu «Zalacain el aventurero» eta «Las inquietudes de Shanti Andía» direla bere lanik onentxoena, ez soilki euskal irakurlearentzat, pentsa ditekenez, baizik eta berdin beste errikoentzat, gertuko nola urrutikoentzat. Zalacain, Paris'ko Sorbona'ko erdera-klasean irakurgai izana, bi bider izan da zinematratua, zorte ontxeago edo txarxeagoarekin. Bigarren nobelari dagokionez, onek ere, Pio jaunak zionez, utsa balio zuen eran zinematratua —entzuna dut kexu Alarcón kaleko bere etxean, pelikula itxas-joera zipitzik ere ez zutenak errealizatu zutelako—. «Las inquietudes de Shanti Andía»-ri buruz zion Azorin maixuak, ez zela mundu guztian liburu bat bakarrik ere Baskoniaz ain aparteki itzegiten zuenik, «bere erriskaetaz, bere itxastxokoetaz eta itxasoaz, ez da ere posible erdal izkuntza —entzun ondo kastizista aul eta milikaok—, ez da ere posible gauza eta gizonen pintaketan



erdal izkuntza espiritualkiago mintzatzeraz irixtea. Miresgarria, ederra benetan prosista zoragarri onen liburu auxe».

Itz auek, diodanez, Azorin'enak dira. Euskaldun ez, baizik Castilla'ko anima duen levantinotar batenak. Motx idatzi oi duen eta erran-merran eta itzaldi berritsuetara gutxi emana den idazlearenak. Bere literatura orfebreri uts eta neurritsu biurtuaz, bere garaiko españitar irakurlearen gusto galdua zuzenbidetu zuen idazlearenak.

1925-ean Benavente'ri buruz argitaratu zen liburu batean eta 98'ko belaunaldiaz itzegitean, literato, musikologo eta hispanista zen Walter Starkie inglesak Baroja «that Basque Arch-European» izendatzen zuen. John T. Reid'ek, iparramerikar kritikariak euskaldun illun eta naasiztat artzen zuen. «The puzzling Basque», zion berari buruz. Piero Pillepich italiarrak Baroja'ri euskal sorkurak zemaion abentura gogoia seiñalaten zuen. Domini Müller'ek (Pablo Schmitz'en *nom de guerre*) 1931-ean idatzen zuen: Baroja ez da erdaldun, au da, jaiotzez eta odolez españitar klasiku, euskaldun baizik. Eragin au bere lan guztian somatzen da». Carl August Bolander sueziarrak ere Pio jaunaren etni-jitea azpimarkatzen du, «euskaldunen edestzaille aparta» deitzen duelarik. Iparrameriketako guztiz ospetsu den John Dos Passos idazleak «**Rocinante vuelve al camino**» izenpuruko liburuan onela idatzen zuen Baroja'ri buruz: «Bernard Shaw'ek ingles deitu dezaiotenik gogo ez du Donosti'an, menditar eta arrantzale enda batek —beraien sudur haundi, matrail gorri, irten eta kuadratuak apurka-apurka, Zubiaurre'tarren koadroeri esker unibersalki ezagutuak izaten asiak dira— ario ez den bere izkuntza zaarrari eta bere abesti eta oitura zaarrerri, münduko menditar erri guztien tema berarekin zintzo jarraitzen dien Gipuzkoako itxasalde tontortsuan kosmopolisaren aintzindari den Donosti'an jaio izana». Francis de Miomandre'k, direla 60 urte bakarrik Goncourt saria irabazi zuen frantzitar nobelari ospetsuak, 1926'an azaldutako **Zalacain el aventurero**'ren frantziko edizioari egiten zion sarreran, Baroja bere erritar medikugintzan, panaderotzan, periodistatzen, eta abarreko bizi egokeraetan aurkeztu ondoren, esaten zuen: «Olakoxe da Pio Baroja, eta ez dezagun aaztu euskaldun —lastasunez eta sakonean— zela seiñalatzea, au da, bakarti, arro, goibel, gogor, bere banean bildua, politasanari iñoiz ere amor ematearen arerio». Argentina'n, Juan B. Gonzalez'ek, baita, Baroja'ren euskal jiteaz oarrarazten zuen. Eta Espaiñi'an Azorin, Ortega y Gasset, Madariaga, Sanchez Rojas, Gonzalez Rigabert, García Mercadal, Mourlane Michelena irundar, Es-

cofet, Cossío eta abar luze bat, berdin oartu ziren seillu ukagaitzaz. Zenbait, bera goraiatzeko; beste zenbait, ez orrenbeste. Gauza ezaguna da, adibidez, Ortega'rentzat euskal adimena, onean edo txarrean, (eta planteatzen zuen bai-ezkoan bat gaitzespen-kutsuzko intenzioea antzematera bultzatu lezake) erabat itxia zela...

Oraindik orain ezagutu dut, emen Donosti'an, San Diego'n (Estatu Batuak) bizi den eta bere tesis unibersitarioaren prestaketan gure artean aurkitzen den Jorge Santana, mexikotar gaztea. Santana honek esplikatzen zidan Baroja'ren zenbait liburu Amerika'n irakurri ondoren, orduan sentitu zuela leenengo aldiz Euskal Lurraldera jira bat egiteko gogoia. Kera biziki bedegar bat nabaitzen zuen Santana'k euskal nobelagilleagan eta berak irakurritako hispano-amerikar idazleekin konparatzean baitipat. Santana —gizon adimen zorrotz eta aztertzaile— Donosti'an ospatutako bertsolarien iru txapelketaetara joan zen euskeraz itzik ere jakin gabe, noski, eta giroa ezagutzeko leiak eramana soil-soilki eta euskal publikoan koblakari erriko oiak sortzen dituzten reakzioak «bere saltsan» istudiatzeko —esaten zidan ezagutu zituala emen Gipuzkoa'n eta, baita, artu-emanak izan, beren aurpegiz eta aiurritz Zalacain'en orrialde edo bere euskal itxaso-nobelaen batetik ateratako ziruditen bere adifneko zenbait gazte.

Lurralde au maite-maiteki zuen Baroja'k, bein baiño geiagotan irten zuen bere alde bidegabekeriz iarrosia ikustean. Bere Euskal Lurraldeko gidaren sarreran, esate baterako, aurpegi eman zion erdal irrati batean izlari zen txotil gaixo bati, zeifnek, euskerari buruz itzegiñaz, esana zuen: «Nor da ausartuko dialekto kaxkar orretan zaunka jarduten»? Merez du, ene gardiz, Pio jaunaren erantzuna itzez-itx adieraztea, orain direla 15 urte, ez egun, argitaratua. Onatx bera:

«A ze arropuzkeri zoroa! Orrek ajola baligu bezela Euskal Herri'an jaio geranoi! A ze kategori parregarriak! Dialektoa, nere iritziz, izkuntza baten aldakuntza bat da. Prantzesa, italianoa eta erdera latinaren dialektoak dira kondaira aldetik, latinaren seme. Zein izkuntzaren seme izan diteke euskera? Izkuntza zaar eta galdu batena? Ba diteke. Uste dut onek ez digula erasorik eginen euskaldunoi. Izkuntzari buruzko arrokeriari, tontokeri utsa deritzaiot. Gutxi izango dira grezitarrek ainbat ooreko izkuntza izan duten erriak, eta orj orrela izanik, zer egin dute aro modernoan? Antzifiako aldi ospetsu baten ondoren, ezerrez, deus ez. Prantzesa, inglesa, italianoa eta erdera dialekto izan dira be-

MIGEL PELAY OROZKO

re garaiean jatorri ezaguna zutenez, gauza jakia zen nundik zetozen. Euskerarenik, berriz, ez da ezagutzen; dialekto kaxkar bat dela esatea Mancha'ko mandazai edo Cazorla menditarteko botijo-saltzaille batek esan dezaken ergelkeri bat dugu».

Auxe dugu, bestalde, gure artean bertan eta politiku izan nai zuten arrazoiakatik (izan gabe, noski, egia faltsozeak, luzaroan ez baidu iñoiz olako izaneko elbururik betetzen) irakurri ez ziotenak edo norbere aukerako ikuseziñaren —aurre-iritzizko eta banazalea— antejuz zatitxo bat irakurri zioten jendeak, euskal-kontrako, bere lurraldea gorroto zuena bezela aurkeztzen ziguten gizona.

Baroja euskal-kontrako! Gutxitan batu izan ziren ontan aiaña ergelkeria ta borondate txarra. Eta, ala ere, bizi luzea izateraiaño iritxi zen irain erantsia. Eraman gaitzala onek oldozketara, geroan ez dezagun onartu, azterketarik gabe, agindu-kutsuzko definizio mota auetakorik.

*Migel Pelay Orozko*

## *Unamuno'ren euskal izakerari buruzko ohar batzuek*

JUAN SAN MARTIN'ek

Ez da arritzekoa Unamuno'k bere izatean Euskalerriko gogoia kutsatua eramatea. Bilbon sortua izatetik aparte, gurasoak ere hemengoak zituan. Aita bergararra eta ama bizkaitarrak arabatikakoa zuen bere jatorria. Bere deitura, Jugo, ez zan erdalduna askok uste izan zuten bezala, baizik Arabako erri baten izenetik zetorkion. Bere haurtzaro guztia eta bere gaztaroaren zati haundi bat hemen igaro zituan, ta asierako denbora harek, iñoiz berak ere besterik uste izanarren, hemengo lurraldea ta giroaren eragiña txertatu zion bere barne gogoan. Bere lenengo lanak ere, batez ere **Recuerdos de niñez y de mocedad** eta **De mi país** batez ere, hemengo sentieraz egiñak daude, berak lehen-dabizikoz argia ikusi zuan herriaren gorazarrez. Ta gizonari nekez aldentzen zaizkio iñoiz bihotzaren barneetan izan duena.

Gero, beste ardura batzuek eta beste bide batzuek eraman zituan. Beste lur batzuek eta beste gizon batzuek ezagutu ta maitatu zituan, ta iñoiz ez zuan menperatu bere barnean gurutzatu zitzaion paradoja.

Unamuno'ren lan nagusia bizitzaren izatearen inguruko saiakera da. Filosofia urratu bat, heriotzaren erpak itsatsirik. Heriotzari igesik eta heriotzaren inguru. Herioak izuten zuen. Bere lan guztiak barna agiri du heriotzak ingurutzen zuen larri-mintasuna.

Bere lehen parteko ardurak eta lanak euskera eta euskal kulturari buruzkoak zituan, 1884-an **La raza vasca y el vascuence** dotoradutzarako tesisakin gainduko zuan aldi hura. Ta zer nabaitu zuen euskal gogoaren barnean? Heriotza, besterik ez. Tesis horretan agiri danez, ez zuan ikusten herri bezala irauntzeko salbabiderik. Baiña bertan ere, ondo aztertzeraz, ez da erreza igartzzea bere heriotzarekiko kezka barnetiarak zenbat oztu zuen gauzak horren etsipenez ikusteko; edo be-

re euskal-gogoak zenbat eragin zion herioaren izuan, geroagoko bi-deetan. Ba da tarte horretan korapillo bat azkatu ezindakoa.

Ba dira esan dutenak, batez ere erdaldunak, heriotzaren izua eta fedearen burruka bere barnetikako euskotar izatetik zetorkiola. Baiña ez dut uste beste gabe nahikoa errazoi danik horrela juzgatzeko. Egia esan, Unamuno'k, heriotzetik salbatzeko, beharrezkoa zuen fedea. Horregaitik, bere sinismenari buruzko burruka hartan fededun arkitzen da. Baiña, Baroja zearo bestera zan, Baroja'k ez zuen federik, esate baterako deusik ere ez, baiña heriotza lasaiago hartzen zuen, ez zuan larri-miñaren aztarnik. Ta ez dut uste bere euskotartasuna hortik nehurtu ditzakeanik.

Gauza honetan, bear bada, errazoizkoagoa da, Baroja'k ba zuela bere herriarentzat maitasuna, edo gutxienez konprenitzeko era, eta hemendik kanpora ere hemengo sentitzen zan bezala, Unamuno'k ez zuen iñoiz arkitu bere bide ziurrik, ez iñoiz eta ez iñun. Batak ere ez zuen arkitu izatearen errazoirik, baiña Baroja'k zertako ta zergaitik ez bazekian ere, erantzunik espero ez zuenez, zala ekian eta zanez konformatzen zan; Unamuno'k, erantzuna nahi zuenez, zergaitikakoa erabagi nahi zuen ta horrek erretzen zuen bere barna, kezken osin illun batean amilduaz.

**Horas de espera, vacías;  
se van pasando los días  
sin valor,  
y va cuajando en mi pecho,  
frío, cerrado y deshecho,  
el terror.**

Hau da Unamuno'ren bizitzako egoera. Hil baiño lehentxoago idatzit zituan poema hauek erakusten digute bere larri-miña. Erabagi gaitzeko auzia bere bizitza zehar, ta zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta illunago arkitzen zelarik. Ta hau zan bere bizitzaren esperientzia bakarra:

**Cual sueño de despedida  
ver a lo lejos la vida  
que pasó,  
y entre brumas en el puerto  
espera muriendo el muerto  
que fui yo.**



Beharbada euskaldunok ez gera egokienak Unamuno'ren euskal izaera ikusteko, ta herbestekoak, ahobatez ikusi izan dute euskaldungoaren garra barnean zeraman gizon bezala. Gaztelaniarentzako maitasunez, baiña euskotar batek Gaztelaniarentzat edo beste edozein herrirentzat izan dezakean erako maitasunez. Anekdotak eraz besterik ez bada ere, orohitzapen batzuek bururatzen zaizkit Unamuno'z.

Alpes mendietako errefujio hartan ezagutu nuen Filadelfiako estudiantearentzat, nungoa nintzan esan nionean: «O!, Unamuno haundiaren lurra. Unamunorena! Beraz, haren herritarra zaitugu». Esaten zidan arrituta bezala, zein da **Testamentu** zaharreko profeta haundi baten herrikoa banintz bezala. Zeren, **Bibliarekin** batean **Del sentimiento trágico de la vida** bai zuen bere libururik maiteena; lau aldiz ingelesez eta baten espaiñolez irakurria zuena. Filadelfiako Unibersidadean ba-omen zan maixu jakitun bat Unamuno'ren lanak zeatz eza gutzen zituana. Ameriketara itzultzean esango omen zion Unamuno'ren herritarra ezagutu zuela, Euskal Herrikoa.

Harek, euskera ere ba zala ekien Unamuno'ren bidez. Gure solasak entzuten ari ziran europarrak, han zeudenak beintzat, lehen aldiz entzuten zuen bazala Euskal Herrian beren hizkuntza berezi bat, eta ba ziran Euskal Herria egoanik ere ez zekitenak. Filadelfiarrak galdera asko egin zizkidan gure mintzairari buruz. Ta arritzen zan Unamuno'k hiletak kantatutako hizkuntza, Unamuno mundutik joan da gero ere, ba zala jakiteak.

Ni ohartu nintzana da, Unamuno bide, gazte harek oso ondo bereizten zuela gure ta gaiñerako Espaiñiaren espaiñol artean egoan uea. Lehendabizi ikusi ninduanen ta han zeuden alpinistak espaiñol bezala presentatu, ezin zuan konprenitu berak torero ta foballistak bakarrik zeudela usten zuen herritik zelan urten zitekean mendizale batek, baiña Euskal Herrikoa nintzala aitortu nionean bai ordea.

Pena haundia eman nion, gure herriko jenderik gehienak Unamuno gaizki ikusten zutela esan nionean. Harek uste zuan, Unamuno'ren lurraldekook haren obra guztia ezagutu ta maitatu behar genuela.

Antonio Machado'k eskeiñi zion poema oso jakingarria da guretzat. Han ikus geneza, haiek eta guk ez genuela berdin ikusten: «**Este donquijotesco / don Miguel de Unamuno, fuerte vasco,...**» esanaz hasten duena.

Baiña azkarriagoak dira León Felipe'k esanak. Igazko udaran «Indice»k ekarren alkarrizketan, Santonja'ri esan zionez: «Mira, yo me siento molesto con don Miguel. Estoy releyendo su **Vida de Don Quijote y Sancho** y me indigno. Claro, como él era vasco nunca entendió a Cervantes. No, señor. Además le envidiaba terriblemente ese precioso castellano fluido, que corre. Los vascos nunca han podido dominar el idioma de Castilla y además carecen del sentido del humor». Hau da hemengo euskaldun eta euskotar erdelzaleak zabaltzen duten hazia, norperana landu ez eta besteenean lotsagarri agertu. Ordua da norperarena ez ahultzeko, besterena aberastu nahirik.

**Vida de Don Quijote y Sancho**, León Felipe'rentzat mingarria bada ere, gero agertuko dudan bezala. Salvatore Mitxelena'rentzat besterada.

Aurtengo urtarrileko «Insula»k ostera, León Felipe beraren beste alkarrizketa bat dakar ta berriz era antzera sartzan da gure filosofuarekin: «Don Miguel era un vasco que se había empeñado en escribir bien en castellano. Era un gran filósofo; sabía mucho griego, latín...», ta aurrerago berriz hau erraiten du: «No aprendió nunca a hablar castellano... No tuvo ni el ritmo ni la magia del castellano... Don Miguel no tenía gracia. Ningún vasco tiene gracia».

Punto honetan grazia gutxi egiten digutenak, hemengo euskaldun eta «euskotar» erdelzaleak dira, gure herriaren alde ere erderaz mintzatzen diranak, L. Felipe'k irakurri ahal dituan hoiek; baiña hala ere, derrigorrez aguantatu beharrez arkitzen gera, gernua ontzitik kanpora egiten ari diran hoiek.

Hortik aparte, León Felipe'k ez zituan maite «Generación del 98» koak. Beren artetik, gizon bezala, begirapenik gehien Pio Baroja'ren alde zuen. Gaizki portatu zirala dio. Ta seguru asko ez du errazoi faltarik. Gazteri guztia liberalismora bultzatu ondorean eta Espaiña burruka bideetan jarri ondorean, egizko ordua iritxi zanean, dezizio sendo bat hartu behar zan orduan, eurak eskuak garbitu zituztela ta... Baiña, hemen ere, ikusten danez, ez du gogoratu nahi Unamuno'ren azken profetia irabaziko duzute baiña konbentzitu ez. Ta, hortarako ere, une haretan, umorea edo zerbait holako behar zan, ta ez gutxi gaiñera.

Gaiñera, une haretan, bi aldetatik agertu zuen bere euskaldungoa, ordua danean dezizio zeatz bat hartzean eta bere herriarentzako maitasunean. Ta une larri hartan karki zan, Kataluiña ta Euskal Herriagai-

tik, Espaiña erdi hortakoak tiroz hil behar zirela esan zuenaren kontra (jakiña, harek esan nahi zuan erdi hori ez zan hori bakarrik, baizik ezkertera zijoaztenak ere bai, baiña bereziki hoiék). Barnean hemengo txerturik eraman ez bazuan, laister salduko zuen bere jatorria, baiña bere gizontasunak ahal zuen. Hala ere ez dut ukatzen Unamuno gizon illuna ez zenik.

\* \* \*

1958-an argitaratu zan **Unamuno ta abendats**, euskeraz Unamuno'ri buruz egin danik lanik onena noski. Gaiñera euskeraren aldetik eta Euskal Herriko semea zan aldetik begiraturik egindako saiakera. Egille bezala, «Iñurritza» izenordearen pean Salbatore Mitxelena zana gordetzen zan. Argitara bezin azkar nahi nion hemengo aldizkariren batean erreseña bat egin, baiña orduko giroan ez zan posible ixilpe antzera atera zan liburu hau aipatzea. Ta, hara hemendik ere gure arteko gaurkotasuneko kultura giroarentzako trabak. Amaika holako gerta zaigu gure belaunaldikoeri. Gaur, berandu da bertako irizpideak aztertzen ekitzeko. Hala ere, bertako horrialde askok freskura ederra dakarte euskeltzaleon hesi estu honetara.

Esate baterako, hara zer dakarren 21-garren orrialdean: «Unamuno'ren euskaltasuna ta euskal-zale iritziak sakonki aztertu nai ba-dera, eztugu aski arek guri buruz berariz ditugun liburu gutxi batzu oiek irakurtzea. **Paz en la guerra, De mi país, La cuestión del vascuence...** Oetan ez bezin sendo ta jator nabariko dizkiogu beste enseiu nagusiaren'otan: **Vida de Don Quijote y Sancho, Del sentimiento trágico de la vida, La crisis del patriotismo, La crisis actual del patriotismo español, Más sobre la crisis del patriotismo...** Ta beste abarren.»

Are gehiago 50-garren orrialdean: «Ta onatx emen, yadanik, irakurle erabera, **Del sentimiento trágico de la vida**'ko etnika xurgatzen asmatzeko araua, euskaltzaleontzat urrezko araua nik uste, ziurkienik iñortxok ez emana, baiña baitare euskal biotzontzat benetan unkgarri bezin anpagarria, ta, aldi berez, gure «gogape»-albistariaren euskal-sustraiak sumaraziko lizkizukena: Unamuno'k diñon bakoitzean: «ni ta ni», zuk irakur: «gu ta gu», eskubide duzunez; edota Euskalerrri zarrari entzun aldarrikatzen: NI ta NI».

«Bilbaotarraren euskal-muñ izkutu sendoa jo nai dunak zuzen beitu-luke fede auxe eramatea aren liburuetara, ok irakurri al izatekotan:



auxe, alegia, batez beste. Euskalerra berberaren agonia dugula Unamuno'rena, ta aretxen Egia, ta aretxen Miña, ta aretxen Eroa, ta aretxen Ezilkor-gosea.»

«Ta baitare, geienetan edo ia beti, Unamuno'ren España geure Euskalerra berbera dugula, ari gainka eta ernalka, bere euskal buruaz eta izenaz ia erabat aztutzeraño.»

Holako hitz gozorik ez zuan jaso iñoiz Unamuno'k euskaltzale bat egandik.

Izan ere, gehienetan, Unamuno iñoiz irakurri gabe eman izan dira bera ta bere lanari buruzko iritziak eta hortik datorzkio kalterik haundiñak gure filosofu bikaiñari. Maiz hitz garbiak, ur gardena bezin garbiak erabiliarren:

**Yo soy mi pueblo.  
Que uno es el hombre de todos  
y otro el hombre de secreto.**

Zer zan bere barnean paradojaz zeramana? «Hay alguien dentro de mí que me las dicta, que me las dice. Le obedezco y no me adentro a verle la cara ni a preguntarle por su nombre» esango du **Vida de Don Quijote y Sancho'n**. Ta Unamuno'k, behar bada, ez zuen ongi ulertuko kixotearekikoa, baiña ez da León Felipe berak ere bertan Unamuno'k ziona.

**Abendats.  
Eusko abendaren arnats.  
Gizaldiaren muñorik muñoz  
gure iraupenaren alatz.  
Eusko bular bakoitzeko laratz.  
Arnats, alatz eta laratz.  
Abendats.**

**Uka nai autenek ere  
odolean aramate.  
Gorrota auteken arren, e'tzegok  
iri egiterik alde.**

UNAMUNO'REN EUSKAL IZAKERARI OHAR BATZUEK

**Yoran urrunak baño arago  
ta muin barrunak baño bertago,  
gurekin augu, noranai-bidez,  
geu geran baño geurekin'ago:  
eusko gogoaren gogo!**

Unamuno ikusteko eran, gutxienez, honela zan praile liberal haren maitasunezko garra. Ta Unamuno'k bere barneko korapillo hartan eusko gogoaren eragiña zeramala zalantza gabe esan geneza.

*Juan San Martin*

# *Jose Maria Salaberria*

Gizona - Idazlea - Euskal-izatea

(1.873-1.940)

ANDONI ITURRIA'k

## 1) SARRERA

Ezta merezi duen aña hitzegin eta idatzi Jose Maria Salaberria'taz. Ahaztuan utzitako idazlea dugu, beste asko bezela. Nork, gure artean, irakurri ditu Salaberriak idatzitako berrogeitaka liburu? Edo Vinaroz'en jaiotako euskaldun honek Españi'ko prensari emandako millaka idazki?

Hemen-hauek egunkaririk ohoreenetakoak, Madril'go «ABC»ek alegia, Salaberria hil-berriari lau orriko geigarritxoakin pagatu zion, ia bi milla idazlan zor zizkion idazle langillari. Españi'ko beste albistariak Salaberria'ren heriotzaren berri hogeitaz hitzekin bete zuten. Banaka batzuk, Donosti'koak batez ere, eraskin luzeagoak erantsi zituzten Salaberria ta bere lanaren ohorez. Baña hauxe dana.

Arrezkero izan oi da, noizik edo behin, oso gutxitan, Salaberria'taz behar lituzketen hitz erdiak tekleatzen dituen linotipistaren bat edo beste. Hutsa...

Ez batxillerrak bakarrik, ezta Letretako arduradunak, ezta periodista gazteak ere, eztute Jose Maria Salaberria'ren lana ezagutzen. Hau xe arritzekoa. Lehen esan bezela, berrhogeita gehiago libururen jabe bai-zan; eta era orotako liburuak: nobela, ensaio, biografi, literatur-kritika, bidazti-saio, tab. «Posiblemente, entre los años 1905 y 1936, José María Salaverría y Manuel Bueno —euskalduna hau ere, bilbotarra— fueron los cronistas españoles de máxima altura intelectual»—

dio aho betez Federico Carlos Sainz de Robles'ek. (1) Nola ba konprenitu Salaberria'ri egin zaion ixilla ta ahatzia?

Zirikiain-Gaiztarro zanak argibide hau eman zigun: hunerik txarre-nean gertatu omen zan, alegia, Salaberria'ren heriotza; hau da 1940'garrenean. Eta jakiña, ez omen zegon horduan España —ta are gutxiago Euskalerrria— heriotz baten begira. Hemengo gerrate gogorra amaitu-berri genun eta bigarren mundiala asia... (2).

Manuel Cerezales, Carmen Laforet nobelagillearen senarra dan kritiko zorrotzak, beste bide bat eskeintzen digu: Salaberria beraren barkatasuna, muxintasuna; ez omen zun bere burua beste idazle ta literaturazaleekin uztartu nahi izandu behinere. (3) Egia esateko, Salaberria bakartia zan oso, berekoia, lagungea. Berez zan olakoxea, baña bere bizi guziko gorreriak hontan asko lagundu zion. Idazlarien solasetan etzun sekula parterik artu. Bakarka jokatu behar beti...

Badira beste motibu gehiago ere: bere lanekin askonaikoa, esketia, asekaitza zan bezelaxe, besteen lanak zorrozki ikusten zituan. Eta kritiku gordiña zan oso, konponketabakoa. Armiarma-sarea azkar asko egingo zion zarrasta. Eta danen aurrean. Ta jakiña; egiak min egin oi du sarritan. Eta egi-zaleak, kontrario asko... Polemikalaria ere ba-zan. Izka-mizka aundiko gaiak erabili zitun eta gehienez bera baño formazio askoz sakonagoa zutenekin; Salaberria buru-maixu bai-zan, hifungo Unibersidadetan ibilli gabea. Hori bai, asko irakurri zun; edonundik inguratutako guzia. Baña etzun Baroja, Unamuno ta beste askoek bezela Unibersidaderik zapaldu, ikusiko degunez. Horretxegatik ere, norberetik ikasia zalako, etsai miñak izan zitun.

Gure lantxo hontan Salaberria gizonaren berri eman nahi dugu, gizonarena ta idazlearena. Ta azkenik Salaberria'ren euskaldun-izatea aztertuko dugu.

## 2) BI BIZITZA (1873-1940)

### 1873

Loreillak sortzi. Castellón de la Plana'ko Vinaroz-urian jaio zitzaigun Jose Maria Gregorio Salaberria eta lpenza, atsaldeko ordubitan. Bere

(1) «Al margen de los libros», «Madrid» egunerokoan 17-8-1955.

(2) «Guía sentimental del País Vasco», 8'garren orrialdean.

(3) «Informaciones» egunkarian 1955'garrenean.

## ANDONI ITURRIA

gurasoak: Jose Maria Salaberria ta Arana, Araba'ko Beotegi'tarra, ta Katalina Ipenza ta Agirre, Gipuzkoarra, Abalzisketan jaioa. Gure idazlaria Vinaroz'en jaioa da beraz, bertako faro-zaitzale bai-zun aita.

### 1877

Lau urte zitula Donosti'ratu zitzaigun. Eta Igeldo'ko Arrobi egaleko faroan tinkatu.

### 1878-1886

Peñaflorida-kaleko erriko eskoletan ibillia degu, protxu gehiegirik gabe, berak aitortzen digunez.

### 1886-1895

Gabez «Escuela de Artes y Oficios» dalakoan jarduten da eta Berraondo izeneko akademi baten egunez «oficinista» izateko asmoz. Baña poesi-deia nabaitzen asia dago ta al-dunean bere griñ orreri darraio. Bitartean aitari itxas-argizaintzan laguntzen alegintzen da. Barku-piloto izan nai luke, baña bere amak ez dio uzten. Azkeneko urtetan soldadu bete-beharrak. Aitaren babesean telegrafista ikasten du.

### 1895-1896

Bere amaren lengusu batek Puerto Rico'ra eramanazi zun. Baña urte bete exkas egin zun. Ezin han etsi...

### 1897-1900

Donosti'ko «Euskal-Erria» izeneko aldizkarian idazten du bere lehenengo lantxoak, 1898'garrenean, hogeitabost urte zitularik. Idazlan horren izena «Recuerdos de un viaje - De vuelta al hogar». Hogeita zazpi urte bete arte Gil'darren dibujo-akademian jardun zan, delineante ikasten. 1899'garrenean ama hil zitzaion.

**1901**

Valentzi'ko tabako-etxean bi urte igaro zitun. Eta horduntxe hasi zan Donosti'ko aldizkaritan maiz-maiz idazten, «La Voz de Guipúzcoa» ta «Pueblo Vasco»n batez ere.

**1906**

Gipuzkoa'ko Diputazioan delineante zegola, idazten du bere lehenengo liburua: «El perro negro». Ta Madril'go «ABC» egunkarian hasten ditu bere etenbageko lanak. Ia bi milla idazlan hil arteraño.

**1907**

Salaberría'ren bigarren liburua «Vieja España», Benito Pérez Galdos'en sarreratxo batekin. «Los lunes del Imparcial» izeneko astero-koan lehendik emanak zitun lanakin osatu zun liburu hau. Asteroko hortan Pío Baroja'ren bitartez sartua zan.

**1908-1909**

Hiru liburu berri: «Nicéforo el Bueno»; «Nicéforo el Tirano» ta «La Virgen de Aránzazu», nobelak hirurak. Argentina alderuntz abiatzen da ta onuntzarakoan «Tierra argentina» argitaratzen du.

**1910**

Loraillean ezkontzen da bere betiko bizi ta maite-lagun izango dan Amalia Galarraga Azkarrunz'koakin. Donosti'n esposatu ziran. Andereñoa, Donosti bertan jaioa ba-zan ere, Errexil kastakoa. Frantzi, Suiza, Portugal da España ikusiak zituzten eztai-txangoan.

**1911**

Berriz ere Argentina alderuntz, bertan gelditzeko asmoakin. Buenos Aires'en ejerzituak empleatzen du delineante bezela ta bertako aldizkaritan lanean hasten da, España'ko idazlanak hutzi gabe. Itxasoz bestaldetik argitaratu zun «Las sombras de Loyola».

## ANDONI ITURRIA

### 1914

Buenos Aires'en aspertu ta Europa aldera dator. Ta lenengo gerate aundia baño len Prantzi ta Alemania ikustatu ondoren Españi'ratzen da. Urte ontantxe beste ibillaldi bat ere egiten du Prantzi'ta Inglatera'n. Urte ontako liburua: «A lo lejos, España vista desde América».

### 1916

Madrid'en jartzen du bere bizitegia, erabateko bizi-lekua. «Cuadros europeos» izkiriartzen du. Hurrengo urtetan: «La afirmación española» (1917), «Espíritu ambulante» (1917), «El muchacho español» (1917) politiku-saiaketan. «El poema de la Pampa» (1918), «Paisajes argentinos» (1918), «Los conquistadores» (1918) bere ibillaldien bihotz-ondo-koak. «La intimidad literaria» (1919), «En la vorágine» (1919).

### 1920-1927

Berriz ere Ameriketa aldera: Argentina, Chile, Peru. Urte ontako liburua, euskaldun-izatearen aldetik interesgarriena: «Alma vasca». Geroxeago, «Páginas novelescas» eta «Santa Teresa». Hurrengo urtean: «Guerra de mujeres» eta «Los fantasmas del Museo». 1922'garrenean bi hilabete pasatzen ditu Marruekos'en eta geroago beste ibillaldia Europa-zear: Frantzi, Belgica, Holanda, Suiza, Alemani ta Italia ikusiaz. Honerakoan: «El Rey Nicéforo» (1923) eta 1926'ean «Los paladines iluminados», «Retratos» eta «Viajero de amor».

### 1927-1930

Ameriketatik hitzaldi batzuk ematera hotsegiten diote: Paraguay, Brasil, Argentina, Venezuela. Itxasoz haruntz zebillela urdailla zulatu zitzaion eta operazio bat egin bear izan zioten Buenos Aires'en. Arrezkero urdail-miñez iraun zuan beti. Garai ontako idazkiak: «Instantes» eta «El oculto pecado» (1927), «El muñeco de trapo» (1928), Paris'en bi hilabete pasa ondoren. «Loyola» ta «Sevilla y el Andalucismo» (1929). Berriz ere Ameriketa'ra bi aldiz, horaingoan Kuba, Mexiko ta New York ikusiaz. «Bolibar» eta «Nuevos retratos» argitaratzen ditu.

1932-1946

Gure «Iparraguirre»ren bizitza egiten du 1932'garrenean eta «Bolibar»en bigarren argitaratzea. Hurrengoan, Mallorca-aldean ibilli ondoren: «Viaje a Mallorca» (1933). Eta geroago: «El instante dramático» ta «Vida de Martín Fierro» (1934). 1935'garrenean Eskandinabia-aldean ikusten degu. Ta baita Alemani ta Frantzian ere.

1936-1939

Donosti'n igaro zuan Españi'ko gerratea. Ta bertako egunkari «La Voz de España»n idaz-lankide artu zuten. «Capitan Nemo» ez-izenakin idazten asi zan, bere senditik aparte zegolako, baiña famili osoa alkar-tu zanean bere izenakin izenpetu zitun lan guziak. 1936'garrenean «El libro de las narraciones» argitaratu zuan.

1940

«Una mujer en la calle» idatzi ondoren Madril'en hil zan, ephillaren 28'an. Bere gorpuzkondoak Donosti'ra erakarri zituzten. Hirurogeita sei urte zitula hil zan.

1941

Españi'ko periodismo-saririk bikañena, «Mariano de Cavia»rena eman zioten, hil-ondoko hospe bezela, Madril'ko «ABC»n idatzitako «Violetas en la ciudad» medio zalarik. 1940 otsahillean idatzia zun artikulua hori.

1955

«Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País»koak bere euskal-idazkiekin bildumatxoa egin eta «Guía sentimental del País Vasco» izeneko liburu bat argitaratu zuten «Monografías Vascongadas»-sortan. Salaberriaren ohore-liburu hau Zirikiain-Gaiztarro'k atondu zuan.

\* \* \*



### 3) GIZONA

Salaberria taju oneko gizona genun. Hara nola zeaztatzen duan Azorin'ek: «Con su melenita gris —sólo Salaverría y Eduardo Dato la traían en su tiempo—, con su sombrero hongo, con su bastón, vestido elegantemente, cenceño, esbelto, sonriente, Salaverría tenía una personalidad distinguida. Se le veía atento, curioso, en la calle, en los espectáculos; en el campo, ante el mar. Su actividad mental se espaciaba extensa, variadamente, por Europa, singularmente por Francia; por América, insistentemente por la Argentina; por España, que había recorrido en múltiples viajes». (4) Holakoxea genun ba, Salaberria: gizon garaia, lerdena, irazkia, pertxenta, txukuna gorputz eta izpirituz. Beti ponpos eta apain. Etzizaizun sekula etxetik aterako esku-makil eta kapelurik gabe. Etxe-barnean, ordea, txapel jatorra aldi-oro.

Xinta zan oso, garaien garaikoa, metodikoa. Bere ordutan ibiliko zan beti. Ta beti, noranai joateko, pauso berdiñiak emango zitun. Estankora joan bear bazun, gaur eta beti estanko berbera. (Garai hartan iru peseta ta bi txakur aundi kostatako «Chesterfield» errekiña erretzen zuan aldi-oro).

Harro xamarra, bakartia, berekoa, bai politiku-solasei ta are gehiago idazle-bilgunei iges, anka egiten zien beti. Berez zan sotil, goibel, bihotz-illunekoa.

Erligio aldetik, eta baita bizitza-saioan ere, sinisgaitza bere idazkitan garbi asko ikusten degunez. Baiña etzan sekula harrotuko horregaitik, beste asko bezela. Azken-eguneraiño eramán zuan bere baitan jainko-kezka. Eta fede galduaren kezka. Bere liburu gehienetan (ikus, batez ere, «La Virgen de Aránzazu», «El rey Nicéforo», «Las sombras de Loyola» ta «Espíritu ambulante» argitaratuak diranen artean eta danen gaintik bere-bere autografi-alatsu dan «Pedrocho» argitaratugea) sinisgor, fedebako ikusten badegu ere, azken egunetan aita García agustindarraren bidez artu zitun kristau-sakramentuak. (Aita García hau beraxe izan zan, azkoz geroago, Marañoñ haundia hil-aurretik Elizaratu zuana).

Langille porrokatua genun Salaberria, zangarra. Gauz guziak asko, etengabe landuko zitun. Bai idazkiak ta baita beste orotako gauz guziak. Itxas-ontziak itxuratzen trebea, mutilla, iaioa, artetsua zan oso.

---

(4) «Salaverria», «ABC» 29-4-1952.

Batez ere bela-ontziak egiten. Berak asmatuko zitun egin-aurretik. Eta bai gozatu ere trinketa, bela-nagusi edo artaina jarri bitartean, zure-riak eta saietsak egin ondoren!.. Ondotxo ikusten zan bere lantxo haue-tan Salaberriaren itxas-miña.

#### 4) IDAZLEA

Etzun Salaberriak, ez orratik, bere aurrekoengandik jasotako grifa, biziera guzian ondotxo erakutsi zigun idazle-joera. Ez asaben artean, ezta senidetan ere, ez degu idazlerik arkitzen.

Salaberria'k ordea txiki-txikitandik zun joera hori, ez noski inguruko egokitasunagatik; ezpaizan garai hartan Donosti'n idaz-jaidurako giro-rik. Eta bestaldetik, etzun Baroja batek edo Unamuno'k eta izan zituz-ten biderik; Unibersidadadeak sarritan eman edo aurreratu oi baitu norbere izateak uka diona. Eta lehen ikusi degunez, gure Salaberria'k etzitun ifungo Unibersidadetan oñik jarri.

Hala ta ere, begira bere idazkietan zenbat eta zenbat idazle ospe-tsuen hitz eta esaerak aipatzen dizkigun: Alemandarrak: Goethe Grimm, Heine, Kant, Marx, Nietzsche, Schopenhauer, Simmel, Spengler, Sitmer, Jakob von Uexkull (sic). Nietzsche ta Shopenhauer zitun be-gikoen.

Frantziko idazleen artean: «La chanson de Roland», La Fontaine, La Bruyere, Racine, Perrault, Apollinaire, Baudelaire, Bergson, Chateau-briand, Daudet, Dumas aita, Flaubert, Fort, France, Gambetta, Gautier, Gide, Victor Hugo, Jammes, Lamartine, Pierre Loti, Maeterlinck, Ma-llarmé, Maupassant, Musset, Proust, Renan, Stendhal, Verlaine, Zola.

Ingelesak: Byron, Carlyle, Chaucer, Huxley, Macaulay, Schakespea-re, Spencer, Sterne, H. G. Wells, Oscar Wilde.

Ipar-amerikarrak: William Wills Darios, Emerson, Anita Loos, Edgar Alan Poe, Whitman.

Italiarrak: Dante, D'Anunzio, Leopardi, Garibaldi, Maquiavelo.

Errusuak: Bakunin, Dostoyewski, Gorki, Kropotkin, Petrokev, Tolstoy.

Eskandinabiarrak: Brandes, Ibsen, Kierkegaard.

Klasikoen artean hoek aipatzen ditu: Homero, Platón, Sókrates, Ce-sar, Cicerón eta Plauto. Estudiorik izan ezta ere, bizia bera ta munduan zearko ibillaldiak izan zitun maixurik bikañenak. Eta, batez ere, irakur-tzeko izan zun grifa.

Liburu artuenak, kuttunenak hoek izan zitun, berak aitortu zuanez: Markos Donearen Ebanjelioa, «El Quijote» ta «Hamlet».

Salaberria'ren idazkera lau hitzetan xurtu genezake. Bere tankera, estiloa holakoxea zan: biguin, garbi, zorrotz, oparoa. Horrela aitortu zun 1947'garrenean Azorin'ek, beintzat. Eta Azorin ez genun txantxetakoa gai hoetan...

Salaberria'ren prosa txukuna da beti, ulerterrexa, leuna, xamurra. Zailtasunak ere errexten saiatuko da. Egia esateko, eztu sarritan gai zaillik erabiliko. Paisajista degu. Eta oitura-zale edo «costumbrista». Begi zorrotzakin ikusiatuko du inguruko guzia ta begiak ikusitakoa zeazki jarri bere idatzietan. Euskal-artzaien goraberak aitatu nahi ditunean eztu ezertxo ere ahaztuko; goxatu egingo da zeaztasun guziak ematen eta baita Urbia'ko goroldioak zenbat motakoak diran ere esango digu. (Ikusi «Guía sentimental del País Vasco»k dakarren «La patria de los pastores» izeneko lana adibidez).

«Subrayamos la significación de José María Salaberria como paisajista literario», dio Melchor Fernández Almagro jaunak. «España le debe bellísimas descripciones: de montaña o paramera, de jardín o monumento, de ciudad bulliciosa o aldea medio muerta. Salaberria posee un fino sentido del color». (5)

Idazkera zuzenekoa zan; etzan ardasta billa joango: esatekoa xuxen esango zuan. Eta itz gutxienetan esan ere.

Lehen eman degu Salaberria'ren liburuen zerrenda. Baita esan ere Madril'go «ABC» egunerokoan ia bi milla artikulu idatzi zituala. Horain aipatu behar ditugu bere idazlantegi berezienak. Egunkari ta aldizkariak:

- «Euskal-Erria (1898) (hasierako urtea)
- «La Voz de Guipúzcoa» (1901).
- «Novedades» (1903) Donosti'ko aldizkaria.
- «El Pueblo Vasco» (1903) Donosti'ko egunerokoa.
- «El Gráfico», Madril'goa (1905).
- «España Nueva» (1905).
- «Los Lunes del Imparcial» (1905).
- «ABC» (1906).
- «La Vanguardia»
- «La Voz de España» (1936).

---

(5) «ABC», 1952'ko jorraillean.

«El Diario Vasco» (1936).

«El Heraldo de Aragón».

Argentina aldean: «La Nación» (1911)

«Caras y Caretas» (1911).

«Plus Ultra».

«Revista del Museo Social Argentino» (1911).

Bai liburutan et bai eguneroko idazkietan erabili zitun galetan lau dira nagusienak: 1) **erligio ta fede prolema**, 2) **Españi-zaletasuna**, 3) **Euskal-oitura ta folklorea**, ta azkenik, 4) **Arjentina ta Amerika**. Lau gai hoek ditu —aitatutako neurrian— Salaberriak bere baitan, kezkatu ta oparotsu.

Salaberriak etzun beste lanbiderik izan. Idazle izan zan erabat eta soillik. Eta hortik atera zun bere ta beretarren bizimodua. Bizimodu airosoa, deduzkoa, noski; biziro egokia. Oso ondo ezkondu zitun bi alabak eta bere andre alargunari ikusteko etxea utzi zion Madril'go Velazquez-kalean. Begira ontaz Gregorio Marañon'ek ziona: «Ha sido Salaverria uno de los últimos representantes —y no sólo en España— de una casta excelsa de escritor: el escritor puro. No fue nunca más que escritor, por lo menos desde que, en sus años mozos, empezó a escribir. Los demás son —somos o hemos sido— escritores más o menos excelsos, pero a la vez profesionales de otras cosas, políticos, profesores, diplomáticos, editores o gente de fortuna copiosa. Salaverria escribió y nada más. En España no tenía, en este sentido, más que un solo compañero: Pío Baroja. Salaverria no fue, no quiso ser, otra cosa que escritor. Sentía la dignidad de su profesión de escritor, así como un deber y una servidumbre elegidos; y no como un medio para alcanzar otras cosas.» (6)

Salaberria degu, Unamuno, Baroja, Maeztu ta Manuel Bueno'rekin, Euskal Herriak Españi'ko literaturari eskeinitako ondasun naroa, mende hontako asieran.

## 5) EUSKAL-IZATEA

Salaberria'ren alargunak, Amalia Galarraga Azkarrunz'koak, 1953'ko epahillaren seian Beatrice Petriz ipar-amerikar andereñoari idatzitako eskutiz batean honela zion aho betez: bere senarra «cien por ciento»

(6) «Un gran académico sin Academia», «La Nación», 1940.

## ANDONI ITURRIA

euskalduna zala, alegia. Aztertu beharko degu «cien por ciento» hau zenbaterafiokoa izan zan.

Jatorriz euskalduna zan goitik eta betik, Vinaroz'en jaioa izanagatik ere. Aitaren aldetik asabak arabatarrak zitun; amanak berriz gipuzkoarrek, goiherrikoak. Amak euskeraz garbi ta ederki erakutsi zion. Eta etzun sekula ahaztu gure izkuntza. Baiña idazlari-griña txikitatik berekin ba-zekarkin ere, etzan ez orixe euskal-griña. Ezpaizigun hitzik ere euskeraz idatzi. Ezta bere gaztaroko «fuerista» garaiean ere. Erabat erderazko griña zun barnean, nunbait.

Euskeratik erderara zerbaít itzuli zun, hori bai. Baiña ezer gutxi. Iparragirre'ren amabi bertso-sorta bakarrik, «Gernikako arbola», «Ara nun diran...», «Ume eder bat», «Agur Euskalerría», «Nere andrea» tabar... «Iparragirre, el último bardo» liburuan utzi zizkigun itzulpen hoek. Besterik ezertxo ere ez. Hutsa!

Euskal-gaiak erabili bai. Lehen aitatu degu bere idaz-gaietan euskal-oiturak eta ze leku zuten. Hontan ere ez aurrenekoa beintzat. Euskal-zaletasuna gehienen azaltzen duten bere liburuak hoek ditugu: «Alma Vasca» eta «Iparragirre, el último bardo». Baita «La Virgen de Aránzazu» ta «Las sombras de Loyola»n ere, baiño askoz eskaxago.

«Alma Vasca» euskal-izateari buruz eskenitako liburua degu. Baiña folklore aldetik, oitura aldetik zeaztu nai digu. Eztu barne-muinik ikutzen. Axaletik dabilkigu. Folklorekeri gehiegi. Ta berdintsu «Iparragirre, el último bardo»n ere. Urretxu'ko koblakariaren bizitzaren berri eman ondoren, Salaberria'k lehen aipatutako amabi bertso ematen dizkigu, euskeraz eta berak egindako itzulpenarekin. Eta gero bost saioketa eskeintzen dizkigu euskal oiturataz.

Salaberriak etzun bere nobeletan euskaldun aitzindaririk jartzeko oiturik. Gehienak espainarrak, arjentinakoak edo goi-europarrak ditugu. «La Virgen de Aránzazu» nobelan azaltzen zaigu, halare, aitzindari bezela **Pedro Orozco**. Baiña nobela honen mamia erlijio-gaia degu. «Viajero de amor» liburuan, berriz, ikusten degun **Pablo Ansorena**, arjentinakoa degu.

Eguneroko ta aldizkaritako lanetan Salaberriak euskal-gai asko erabili zitun. Baña egundo ez sakonki. Agergarri bezela lan hauetako batzuen izenburuak azaltzen ditugu Madril'go «ABC»tik artuta: «De San Sebastián a Bilbao» (19-3-1906), «Los Altos Hornos de Bilbao» (21-5-1906), «Los Astilleros del Nervión» (26-5-1906), «Con el vicario de Zarauz» (2-9-1906), «El Santuario de Aránzazu» (2-10-1906), «San Se-

bastián, apertura de la sesión» (287-1908), «Víctor Hugo en Pasages» (2-9-1908), «El federalismo industrial de Guipúzcoa» (16-4-1910), «Bales rusos en San Sebastián» (4-9-1916), «La Casa de Ignacio Zuloaga» (5-7-1916), «La guerra en Bilbao» (17-7-1916), «Los ricos de Bilbao» (7-10-1916), «Los Fueros y los bizkaitarras» (24-7-1917), «Navarra» (17-9-1917), «Bilbao la bella» (29-9-1917), «El artificio regional» (18-1-1918), «Rincones de Vizcaya» (5-9-1919), «Impresión del País Vasco» (5-7-1921), «Pompa de salvas en la bahía de San Sebastián» (19-9-1922), «El caso Baroja» (28-12-1923), «El tamboril en la zarzuela» (16-11-1926), «Un libro nuevo: Loyola» (13-4-1929), «La figura de Loyola» (19-8-1930), «El País Vasco y la libertad» (25-7-1931), «Unas palabras de amistad a los vascos» (28-1-1932), «Paréntesis vasco» (4-9-1934), «Pitos nacionales: el pelotari» (5-4-1936).

Birritan esana degu Salaberria'k ia bi milla artikulu idatzi zitula «ABC» egunerokoan. Euskal-gaietakoak oso gutxi. Eta hoitatik gehienak deskrizio-sailletakoak. Hori bai, euskal-lurraldetako amaika deskrizio eder eta zoragarri utzi zizkigun «Guía sentimental del País Vasco» liburuan ikusi dezakegunez.

Politika-aldetik, Salaberria gaztetan —Donosti'tik kanpora erten baiño lehenago— «fuerista» izana zan. Euskal lege-zarren zaletasuna ondo erakusten digu Jose de Arteche jaunak Gipuzkoa'ko Diputazioan arkitutako poema batean. Salaberria'k idatzitako olerki bakarra degu hau, sekula argitaratu gabea, ta bere eskuz jarria. Poema honek «¿Muere la patria?» izenekoa da, ta 1892'ko jorrahillean egin zun. Hona emen poema honen hitz batzuk:

«¡Verguenza!... Hay sí! Si los valientes «bascos» (sic) de legendarias épocas alzarán su venerable frente y a sus nietos mirarán entregados al cruel lloro, joh, infamia!, exclamarían, y en la hueca tumba hundiríanse a esconder su espanto, maldiciendo a sus viles descendientes, que no sabiendo conservar viriles sus sacrosantos fueros y derechos lloran sobre las ruinas de su patria lágrimas humillantes...»

ANDONI ITURRIA


«Y pasan, y en un círculo brumoso  
me rodean, me estrechan en su centro  
y, mostrándome un roble centenario,  
a punto que levantan sus aceros,  
parecen indicarme con sus señas  
su gloriosa misión en veinte siglos:  
combatir por las santas libertades  
de la Euskara región hasta la muerte.»

Fuero-zaletasun hau berehalaxe pasa zitzaion Madril'eratu zanetik. Geroago españolista amorratua biurtu zan. «La afirmación española» eta «El muchacho español» liburuak irakurtzea naiko degu hau egizta-tzeko. Ta baita bere beste liburu gehienak ere. Abertzaletasun-hitzik ere etzuan aitu nahi. Eta are gutxiago azkatasuna edo Sabino Arana-Goirik eratutako Alderdia. Hau dala-ta itxillu aundiak izan zitun. Bai emen ta baita Ameriketean ere. Lenengo aldiz Arjentina joan zanean Buenos Aires'ko «Laurak Bat» taldekoak itzaldi bat eskeini zioten. Baiña itzaldi-aurretik españolista porrokatua zala ikusita, uko egin zioten. Eta zapuztuta gelditu zan Salaberria. 1909'garrenean gertatutakoa hau.

*Andoni Iturria*

# NOTA LABURRAK

## LUTHER KING, EZIÑAREN AMESLARI?



Luther King beltzaren heriotzak sortu zuan harridura igaro dan ezker, bere irudiaren barnea arakatzea dagokio orain munduari. Arakatze hau ez da Nobel Sariaren moraltasuna eta gizatasuna neurtuaz egingo, bai bata ta bai bestea ezagunak zaizkigu-ta sobrare. Batez ere ikusiko dana beste zer-  
rau da: EE. UU.'ko beltzak liberatzeko burruka hortan bere eginpideen efikazia.

Eragimena diogu. Ta bai, hain zuzen ere, King'ek berak efikazia irizpidetzat arturik aurkeztu zuan bere egintza guztia. Ez dago dudarik egintza bat egiterakoan, benetakotasuna defenditzearren, justizia aldeztearren, moralaren alde joatearren, biotz-bera izateagatik, lagunurkoaren maitasunagatik, etabar... obratu dezakeala batek. Baiña efikazia ere eskatu beharko diogu egintza horri. Ze, bestela, planteamentua azken muturreraino eramanaz, ondorio oker bat atera genezake, hots: moral-egintzari efikaziarik ez badiogu ematen, moralikan gabeko egintza izanen dala beti garaille, irabazle.

King'ek zentzugabekeri ustel hau ezin zezakean onartu eta bere «eragiñezko indarkarik-eza»-ren egitarauaren nagusitasuna baieztan du gartsuki, efikazi edo eragimenaren arabera epaituaz han zuzen. Hau zan bere izenpurua: «Indarkarik-ezazko jazarketa da gizon zanpatuaren guda-ixkillurik eragilleena».

King'ek, eta Ghandi'k ere, postulado hontan erabateko fedea zeukaten. Jende askok, oster, ez du onartzen. Indarrezko ixkilluen nagusikerian daukate itxaropena. «Guda ezeztatzeko bide bakarra guda da. Fusillak kentzeko bide bakarra fusilla artzea da. Gerrarekin gerraren aurka eta zizparekin zizparen aurka gudukatu behar dugu», Mao-Tse-Tung'ek dionez.

King'ena baiezen bat eta fede bat bazan, Mao-Tse-Tung'en hau ere baiezen kategoriko bat da eta fede bat, gogorkerian sifiñstea, alegia.

Orain, baldin indarkarik-ezazko ixkilluen eragimena ezin baditeke fro-



gatu (beste arrazoi batzuen artean oraindik «eragíñezko indarkarik-eza»-ren bide hau hasi-berria dalako munduan), guda armatuaren efikazia ere ezin da, ba, frogatu.

Kontrara baiño, kondaira, zehatz-mehatz aztertuaz, etsigarria da puntu hontan. Eta honek ba du bere adierazbidea, armak itsuak dirala eta, itsu diranez, arrazoiaren, zuzentasunaren, egiaren eta ontasunaren alde jokatu dutenik beñiere aurretiaz ez dakigula konturatzen bagera. Biolentziak ez du ia beñiere justizia lortu, eta ez hori bakarrik, gehientsuenetan, indarkak biolentzia edo ekarri ohi du edo iraunazi edo gehitu.

Mao'k besterik esan nahi badu ere, seguruen —ez, segurua—, zera da, gudu bat irabazi, kañoiak irabazten dutela, ez arrazoiak. Jazoera hau ukagaitza da. Ta ukagaitza dan neurrian tamalgarria ere. Herri baten zoria gudua- ren mendean uztea, herri hori halabeharrari, indar itsuari, uztea da, ume baten bizitza odol-egarri dan ero deslai baten mende lagako bagenu bezela.

Bai, sarri asko oinperatuen justiziak zori gaiztoa izan du guduetan. Opresatzaileak, jeneralki, ornituagoak daude. Armak egin ta lortzeko bide gehiago daukate.

Ez dezagun ahaztu. EE. UU.-k Vietnam ez badu desegin, ez da izan armamentu-faltaz, garbi dago. Gizadiak egin duan indarra izan da hemen era gillea. Ikusten da, indar moralak, batzuetan bederen, indar fisikoak baiño ahalmen gehiago dauka.

Dana dala, arazo hauetan erabaki garbi batera danok irixtea gaitz dala aitortu beharra dago, ze efikaziaren berri geroak eman ohi du, «a posteriori», beraz. Eta historiak bide bat bakarra egin ohi duanez, bide hobeagoa zein zitekean jakitea ezíña zaigu.

Honela, arrazoiak zeínek, King'ek ala Aginte beltzak, Rap Brown'ek, Stokely Carmichael'ek?

Síñismena síñismenaren kontra eta postuladuak postuladuen kontra, Martin Luther King'enak eta ez Carmichael'en postuladuak aukeratzen ditugu, arrazoi askogatik.

Bob'en hiltze garratza ondoren

**TED, HARTZAK IK LASTARGIA...!**



Barru guzia irauli digu Robert Kennedy'ren hilketa gorrota-garriak. Beltzkeri hori aitatzeko hitzik eztegu arkitzen. Ezpaita gure artean makurkeri hori berean uzteko hitzik.

Horaindik aidean dabil bere anai John'en odol-heriotzaren durundioa. Ta horra hemen bigarren anaia, Ipar-Ameriketako Agintea iritxi-zorian jarri daneko, bere auteskunde-anetan ari dala eratxi dute.

Berehala jaiki da mundu guzian txarkeri horren kontrako garraxi zorrotza. Ta galdezka ari gera orok ze illunpetako kutizi izkutuak ote diran hala-

ko zakurkeriak eragin-arazten dituztenak; Ameriketako Estatu Batuetan politika-bideak gaizkille grifnez itotzen dituztenak.

Lau urteterdi dira Dallas-en Kennedy Lendakaria hil zutela. Ta horaindik izkutu dago guretzat hiltzaillearen izena, ta askoz izkutuago horaindik hiltzaillearen atzean gordeak eta hari aise-ematen jardunak.

Hori gauza astuna litzake edozein aldetan. Baiña bidegabekeri hoiak ondasunik gehien dituan herrian, sartalde-herritako gidari izan nahi duan lurraldean gertatzea, egundoko gaizbidea da, noski. Besterik gabe, Shakespeare aundiaren esaera sonatua datorkigu gogora: «Ba-da zerbait Dinamar-ka'n ustel-hatsa dariona». Bai, orratik, itxasoz bestaldetik ere...!

Berriro lengo lokatzak arrotu al-dira? Baietzkoan gaude. Ta horaingoan zeru-lurra azartu bearko dira gauzak argi ikus ditezten. Bestela, nahiko lotsa badegu Herririk aurreratuenen eta demokrazirik aberatsuenen gertatzen ari diran itxuskeri hauek bide dirala.

Galdetzekoa da hau ere: ze barneko ta azaleko indar eta kemen ote dute Kennedy seni-artekoak horren etsai gogor eta zitalak sortu arazten dituztenean... Ted, hirugarren anaia, lastargia eskuarteaz hartzeko prest dagola badakigu. Bere aurrekoak bezin gogotsu ta adoretzu eraman dezala.

A. I.

## ROBERT KENNEDY: ESPERANTZA BAT



«Mundua asaldatu duan tragedia» izan da Robert F. Kennedy' ren heriotza. Esango nuke, esakizuna borobilduaz, drama beraren irugarren ekitaldia izan dala.

Iru gertalditan ospatu da EE. UU.-en tragedia nagusi bat: John F. Kennedy hil dute. Oihala erortzen da. Oihala berriz ere gora. Beltzak eta zuriak agertzen dira antzokian. Luther King hiltzen dute. Oihala erortzen da. Irugarrenez oihala za-

baltzen danean, jai batek pozten ditu antzezlariak. Ekitaldi laburra oraingoa: azken partean Robert Kennedy'ren odola ikusi ditekete. Ta Kennedy, luze. Oihala eror dedilla.

Artixtak dira benetan ameriketarrik. Drama oso-oso bat eskeiñi digute. Oso klasikoa, gaiñera: iru agerralditan egiña. Klasikoegia, pena da, sentidu askotan. Dramaren egillea, ez da dudarik, bat bera da iru gertaldietan.

Ipar-Amerika'ko filmak, beti ta beti, azken pozgarri batekin agurtzen gaituztela ezaguna da. Baiña oraingo tragedia honek ez digu filma hoi en esperantza faltso huraxe ere laga. Illuna geratu da dena, illuna mundua. Esperantzarik gabe.

## NOTA LABURRAK

Ez dago ukatzerik. Robert Kennedy'ren heriotzak munduko gizon askoen biotzen esperantzaz bala bat sartu du sakon. Eta Barnard osagilleak ezin dezake sendatu biotz hori.

Robert Kennedy esperantza bizi bat zan. Robert'ek aurkeztu zezakean etorkizunaz gaztediak konfiantza ba zeukan. Eta Robert ere fidatzen zan gazte-jendeekin, eta haiekin zegoan: «Gure erantzuna («gizarte aberatseko» geldizaleeri) zera da, gaztedian konfidatzea, gaztedi hau ez bizitza-epe bat bezela arturik, baizik-eta pentsamentu-molde bat, borondatearen nagusitasuna, asmamenaren tasuna, bildurra baiño lehenago ausardia, biziera errexa baiño lehenago abentura-egarrria bezela ulerturik».

Robert bera bi belaunaldien zubia izan zitekean. Eskatzen zuan elkarrizketaren bidez. Ta zubia erorj egin da.

Robert Kennedy itxaropen bizi bat zan ere Vietnam lurraldeetako gudu madarikatu hori ez demokrazia aldeztarren baizik zeozer zikinagoagatik egiten dutela uste izan eta berealaxe bukatua nahi luketen hoentzat. Ta hori uste dutenak asko dira.

Robert Kennedy, irugarren (beti iru!) pontua ikuitzearren, zuriak eta beltzak anaikiro bizi ditezela nahi dutenentzat esperantza bat zan.

Berak eskatu ohi zuan «mundu berri» hortan EE. UU.-en aspaldiko «lotsa» hori behin betirako ezabatu egin behar zan. Baiña, orain? Ralph Abernathy'ren hitzak ezin ditezke hain aguro ahaztu (ahaztu nahita ere), Robert'en heriotza komentatzean.

Ez ote da posible ideal bat ezurmamitzea?

Beste milla hitz esan genitzake. Ez ditugu esango. Ixil gaitezen.

Otoitz bat egin dezagun bere alde. Ta beste bat, istilluz ta ixkilluz beteriko mundu aldakor hontara esperantzaren argia dakarkigun beste gizonik hil ez dedin.

J. M. T.

### JOAN MANUEL SERRAT

(edo «Eurovision»era joan nahi izan ez duen mutilla)



Pertsona bati tranpa egin nahi zaionean, lehenengo pausoa bere erroetatik eta sustraetatik ateratzea izaten da.

Orduan, mundu hontan dena relatiboa dela sinist-arazi. Bere izateak eta eginkizunak eduki ditzakean arrazoi eta esan-nahi kolektiboak gaitzetsi. Bere «nortasun» axalezko eta inperstonalenean killimakurrak egin. Beifñ hortara iritxi ezker, pertsona hori prest daukagu kobardekeri eta manio-

bra faltsu guzietarako.

Bestalde, dirua eta fama medio direla, jostaketa askotara behartu liteke bere buruaren jabe ziara ez den edozeifñ. Orregatik pentsatzen dut nik «biguñeria» dela gaurko gizonen defektorik bildurgarrienetako bat.

Gaiñera, jende asko dago gure artean, eta mundu osoan, «politika» egiten ari dirala adierazten diezunean zearo astoratzen eta ikaritzen diranak. Baiñan politika bi erataria egin diteke. Bat, egiñaz: hau da, kolektibidadearen aurrean bakoitza bere eginkizunetaz responsabilizatuz. Bestea, egiten utziaz: hau da, besteren politika joku eta maniobretan mantso-mantso eroriaz. Gaur egunean ez dago bi inplikazio klase hoietako batetik eskapatzerik.

Eta bietan bat aukeratzekotan, milla bider ohea da, eta jatorrizkoagoa (jatorragoa) lehenengo postura. Hain xuxen, hori da askatasunez eta digidadez aukeratu ditekera postura bakarra.

Joan Manuel Serrat katalandar kantariak, kezka eta gorabera askoren ondoren, postura hau aukeratu du. Eta gu berarekin gaude bihotzez. Askok sufritu beharko du, behar bada, emendik aurrera. Famaren eta exitoaren ateak itxiko dizkiote etsairik txarrenari bezela. Baiñan bere aukera ona eta jatorra izan da; beñ ta betirakoa gaiñera.

Zeren ta emendik aurrera, suerte on edo txarragoarekin, oztopo asko edo gutxikin, bere kantak egiten jarraitzeko eskubidea eta libertatea izango ditu. Eta bere herriaren aurrean kantari «herrickoia» izaten jarraitzeko eskubidea irabazi du. Bestela berriz, «Eurovision»-eko festivalera joan izan bazan, bide bat bakarra gelditzen zitzaion: sasi-kantari izatekoa, artixta iruzurtsu eta benetan «alienatuaren» kondizioa bereganatuaz. Eta «alienatu» hitzak, kasu hontan, «etsaien intentzioetan erortzeko eta umilatzeko prest egotea» esan nahi du, dudarik gabe.

Bere nortasunean tinko jarraitzeagatik, lehen sari izentsu bat galtzea, dirua galtzea (miloi asko), kritikatu eta gaitzetsia izatea... Gauz hoiak denak, zenbait jende ez ditu «konprendituko» (konprenditu nahiko). Guk bai ordea, ederki konprenditzen ditugu.

Kosta zitzaizun erabakitzea, baiñan ondo egin duzu. Zurekin gaude. Zorionak, Joan Manuel.

X. L.

## LEIAKETA BAT



Biderik erabillienetariko bat leiaketa da, dudarik gabe. Izan ere, leiaketa batek anitz alde on ditu bere baitan. Ta beste balioetasun batzuen aurka ez doanean, beti da onartzekoa. Zenbait kasutan, konzientzia-sortzaille bat izan ditekera.

Coca-Cola'k, beste elkarte batzuen laguntzarekin, sortu zuen Txapelketaren hirugarren saioa ospatu da oraintsu. Aurzarotik asita Preuniversitario arteraifoko mutil neskek ameztuen zituan leiaketa honek, bi sail nagusitan banaturik. Sail bakoitza, orobat, A ta B taldean erdibitzen zan, adinari begiratuaz. 12 urterarteak marrazki batzueri oñiak jartzen zizkieten; eta nagusiagoek, idazlanak ixkiriatu behar zituzten.

Bide on bat iruditzen zait norgeiagoka hau. Sariketa hauen bidez Ikasteetean euskal-giroa sortzen baida (edo sortu ditekera, edo sortu behar da,

## NOTA LABURRAK

ulertzen?). Izan ere, gizona, naizta saria bigarren maillako mugitzaille izan, sariak mugitzen du sarri asko. Gizonaren eragille, ba dakigu, konzientziak behar luke izan. Baiña gizarteko ta giza-barneko egituren erruz, anitz gizonen konzientzi hori, kasurik onenetan, ezabatua dago. Ta orduan konzientziari dei egitea alperrik da. Konzientzi honek, esnarazle batzuk behar ditu. Giza-ekintzaren justifikatzaile ezin ditezke izan, baiña bai eragille. Eragille hauetatik bat, hain zuzen, saria da. Ta konzientziak bultzatzea lortu ezin ditazkean batzuk, sariak bai; guztiok dakizkigu, gutxi edo gehiago, adibide batzuk.

Kultura arloan, sariaren erakar-indar hau ahazturik izan dugu euskaldunok. Deportetean bai, hor ez da holakorik falta izan. Ikas daigun, nundik daukagun artean.

Baiña, ume ta gaztetxoeren arteko Sariaketa izan dan ezkerero, sari bati beste betekizun bat ere ematen diot. Nekez eska litzaioke ume bati gertakizun baten konzientzia. Ez da gauza, gehienetan, ez konbiziorako ez erresponsabilidaderako. Beraz, zaletasuna sortu behar diogu, zaletasun edo interes horren bidez konzientziaren argia piztu dakion, gero baten. Egiñaz eta ekiñaz bide bat ar dezala, ta gero, ahal duanean, orduan ikusiko du egin duen bide horren nundik-norakoa, sentidua.

Konzientziarazteko biderik egokienetariko bat hau da. Ta konzientziaraztea, Cesaire'k dionez, anima berriak kreatzea da. Horregatik, ba, alde hontatik, holako sarietari oso interesgarri derizkiot. Gure txaloak, beraz, Coca-Cola'k sortutako III'gn. Leiaketa honi.

Halere, Leiaketa hontako bi puntu zuzendu nahi nituzke (zuzendu edo, neri dagokidanez, desakordua adierazi. Hori da.)

Sail bakoitzeko lehenengokoena izan ezik, beste danen sariak euskal liburu batzuk izan dira. Baiña, Jainkoa!, umearen sikologija ta nagusiarena bat ote da, ba? Liburuak bai, baiña batez ere beste ikusgailu batzuk banatu behar zaizkio gazteari, erakusgarri diran beste zer batzuk. Banaketa batera eginda ere, erderazko sarituak etzuten libururik jaso, ta bai argazki-makiñak eta ho'akotsuak. Euskal-umeak, aldiz, intelektualak ote dira? Ez ote dira, bes-teen modura, umeak? Pena da ez jakitea.

Beste desakordugai bat. Nagusien artean zergatik alkartu zituzten A ta B taldeak, sari bakarrak talde bientzako banatuaz? Uste dut batxilleratoko III'gn. urtekoak ez daudela Preuniversitarioen mailla berean. Erabakia berandu artua izanez gaiñera, 13-14 urteko gutxi animatuko dira, hortara, urren-goan parte-artzera.

Gehiena (zailena) burutua dagoalarik, xehetasun hauek hobeagotu dituzela; onena, kasu hontan, ez da-ta onaren etsaia.

J. M. T.

## ELIZA TA BIOLENTZIA



Peguy famatuak «ordena» dalakoaren gogorkeria, desordena-koarena baiño bildurgarriagoa ta txarragoa dala esan ohi zuen.

Biolentzia zera da, alegia, gizon bati edo gizarte bati, zuzenbidearen, borondatearen, arrazoiaren, moralaren ta eskubidearen bitartez eskatu beharko litzaiokena, bortxaz, gogorkeriz, bildurraren ta gezurraren bitartez bertatik ateratzea. Pertsona bat edo komunitate bat gauzatzat edo animalizat erabili eta hartaz baliatzea da biolentzia.

Gure gizartetan biolentzirik handiena ta astunena, herriari goitik behe-ra egiten zaiona izan ohi da gehienetan. Alegia, zuzengabeko legeak, estrutura okerrak eta ahal-gehiegikeriak eragiten diotena. Opresioa eta bildur-araztea edo intimidazioa, esate baterako, izugarrizko gogorkeriak dira, berauek ixurritako odola askotan ikusten ez bada ere. Kaleetako biolentzia ez da txarrena, baizik politika ta sozial egiturak jende apal ta pobreaki, edo menpeko arrazari, egiten dietena.

Hau ikusi, ez da garbi ikusten, edo hobe esateko, askok ez dute ikusi nahi. Menpekoek egindako gogorkeria besterik ez dute ikusi nahi.

Elizak gogortasun guztiak batean salatzea, gizarte bakoitzean gogorkeri nagusia nundik datorren azaldu gabe, askatze erreza, areago errezegia, dirudi. Jokaera honek «status quo» dalakoaren alde jotzen du, pobreak eta mirabeak ahaldunen eskuetan jartzen ditu-ta.

Elizak gizonaren errealitatea ezagutzen du. Horregatik gogortasuna biotzez igundu arren, ateak ez dizkio ixten biolentziari. Guztiok dakigunez, kristau-moralistak guda zuzena ta matxinada zuzena haintzat artzen dituzte, baita gogorrezko bide hauek noiz ta nola erabili behar diran esan ere.

Ez da egia, beraz, Elizak beti ta nunai gogortasuna kondenatzen duanik.

Hortaz oso jakinduri handia erakusten du, gogorkeri batetik iges egiten saiatzean, beste biolentzi handiago batean erori ditekeelako. Zazpi begiekin ibilli behar da, izan ere, sail hontan; gauza bakoitzari bere egiazko izena ezarri behar zaio.

Bestela, ahaldunak Elizaren hitzetaz baliatuko dira beren azpiko lana egiteko. «Zuek, menpekuok, gelditu zaitezte, Elizak biolentzi guztiak gaiztoak direla diolako».

K. S.

Populorum Progressio. Andik urte betera



### KRISTAUDIAREN PEKATUA

Urte bete, Paulo seigarrenak dei larri bat egin zuala mundu osoari azitzen dijoazten nazio ta herrien alde; gai honez Aita Santu batek egindakoetan lenengoa. Behar bada Eleiz-idazkitan erabiltzen ez dan izkerakin, beltza zana beltza bezela azalduaz, zuri zana herriz zuri —gehiegi ez, zoritxarrez, gai honetan—.

Han ta hemen arrera ona zan zun. Komunistak berak ere —Prantzia'n ta— ontzat ta beretzat artu zuten asmo-aldetik beintzat naiz jokabideetan bat ez etorri. Mundu guzian kontzientzia astindu zuan.

Orain gizaldi bat gizarte auzia, nagusi ta langilleen artean mugatzen zan. Gaur herriz, gizarte-auzi nagusia herri aurreratu ta atzeratuen artean dago. Izan ere, nazio aberatsak geroago ta aberatsago ta beartsuak beartsuago azaltzen zaizkigu. Edo gutxienez, aurreratuak azkarrago dabilzala bere aurrerabide ibillian eta atzeratuen eta aurreratuen artean dagon aldia geroago ta audiagoa dala. Nora goaz, jaunak?

Hau guzia ikusiaz, ekonomiaren oinarriak aztertu beharra dago. Kapitalismoak kulpa aundia dauka gai honetan. Oinarri ta zimentu hoiek ziara aldatzen ez diran bitartean, ez dago zer egiñik. Ta kapitalismotaz iritzi ta hitz gogorrek zekarzkin enziklika honek. Izan ere, munduaren martxa diruaren esku, dirudunen esku jartzen baidu xixtema honek eta dirudunen eta mundu osoaren beharrak eta asmoak ez dira hain elkartu-errezak. Batekoz bestera gehiengan.

Honela, gu ez gera gehiegi arritzen New Delhi'n gertatu danakin. Orain dala egun gutxi India'ko kapital honetan, herri aberats ta pobreak alkartu dira elkarren arteko ekonomi-artuemanak zuzentzeko. Egunkari batek keja hau azaltzen zuan: aberats hoiek ez dira gauza izan beren emantzaren 100' tik 1 herri atzeratuentzat uzteko.

Guk hauxe esango genduke. Alde batetik, ez gera gehiegi arritzen. Baiña bestetik, erabaki hau ontzat eman izan bazuten ere, etzan naikoa izango. Ez da gutxiagorik ere. Hirugarren munduak bere eskubideak ba dauzka eta honen auzia ez du konponduko herri aurreratuen limosna zikin batek.

Baiña auzi hau dala-ta, ba dugu beste pentsakizunik. Herri aurreratuak Kristaidiko herriak ditugula. Hau da, mailla hontako herririk gehienak, gutxienez Kristoren erlijioak kutsututakoak dirala —protestante, ortodoso ta katoliko— eta gehienak kristautzat beren burua aitortzen dutela. Nun da Nazareth'eko Langillea?

Ogeigarren gizaldiko gizarte-auzia, herri aurreratu ta atzeratuen artean dago eta ia-ia Kristaidiko ta Kristaidiko ez diran herrien artean. Jakiña, Kristauditaz mintza naiz, ez Kristautasun'etaz. Gai honetan Kristaudiak menderatzeko bideak —xixtima— sortu ditu, ez gizonak eta herriak anaikiro bizitzeko. Hona emen Kristaudiaren pekatu larria, «Populorum Progressio» horrek arpegira botatzen diguna.

A. L.

## ETXEGINTZARAKO LURREN FISKALIZAZIOA



Prokuradoreak erabili duten gaia, besteen artean, lurraren espekulazioak planteatzen duena izan da. Etxebizitza da gure artean prolema agiriaren eta garrantzenetakoa. Agiriarena beste ezerreri erreferentzirik egin beharrik ez dagoelako. Garrantzena, berriz, gizonaren premietan janariarekin eta jantziarekin batera irukote oiñarrikoena osatzen duelako.

Amaika esames ba dira etxebizitzekin azkarregi aberastu diranetaz, lurrekin, terrenoekin uste gabeko negozioak egin dituztenetaz. Inmobiliariak, lurren jabeak eta etxegilleak makiña bat diru bereganatu dute gizonaren eskubide nagusienetako baten desprezioan. Eta hau ez da demagogia, agirian dagoen zerbait baizik.

Lurraren espekulazioari frenu bat jartzeko ea komeni den edo ez lurren salbentarentzat fiskalizazio bat izan da, puntu oni dagokionez, prokuradoreen eztabaiden muiña, Gobernuak Korteetan proposatu duen legearen bitartez ohea izango da etxegintzarako lurren jabeak bere hoietan etxeak egiten astea espekulatzeari baiño. Posible ote da asmo hori betetzea? Era hontako lege baten bitartez zuzendu al diteke etxebizitzak planteatuta daukan prolema izugarria?

Italia'n azkeneko elezio hauen aurretik erdi ezkerreko gobernua osatu zanean, kristau demokratik eta sozialistak bere programan lurraren espekulazioarekin bukatzeko neurriak jarriko zituztela agindu zuten. Frantzia'n Defferre'k ezkertiarren izenean lehendakari-gai izateko saiaketak egin zituztanean beste horrenbeste egin zuen. Britainia Aundia'n berriz, Wilson'ek, oraindik gobernuko ez zanean, programaren baitan lurraren munizipalizazioa sartu zuen.

Herrialde hoietako esperientziak ez du itxaropen gehiegirik ematen. Gauza behar bezela aztertu ezkerre kasikan ezin ditekela bestela izan ikusiko da. Izan ere kapitalismo berriaren barruan proposamendu hoiak erreforma erreboluzionario batean bihurtu ditezke. Eta hori ez da posible hortarako estrateji konkretu bat planteatzen ez bada eta behar bezelako indarrarekin kontatzen ez bada.

Hori bai, giroak horrela eskatzen duelako, programa bati, joera bati, ezkertiar itxura eta usaia emateko komenigarria da horrelako zerbait esatea, gero beteko ez bada ere. Hori da gutxienean Britainia Aundia'n eta Italia'n gertatutakoa. Bi hoietan posible izan bada, puntu honi dagokionez gutxienez, itzeen eta egiteen artean dagoen diferentzia neurtzea.

R. A.

*Gaurko "Nota laburra" idatzi dutenak, hauek dira:* Rikardo ARREGI, Andoni ITURRIA, Andoni LEKUONA, Xabier LETE, Karlos SANTAMARIA, Joan Mari TORREALDAY.



# KRONIKAK

## *Estremismoen pizkundea* NPD

### ALEMANIA-KO POLITIKAN.

Jose Azurmendi'ren idazlana jaso ta gero, gaurkotasun gehiago artu du NPD Alderdiak.

Baden-Wuttemberg'eko ondorioak (naizta mementokoak izan) harritu egin ditu asko, ta beste asko mindu. Stuttgart'en, izan ere, Alderdi honek, 1964'an deus lortu ez zuan bitartean, aurten 9,8% lortu du egin dan autaketan. Eta Parlamentuko 12 alki bereganatu ere bai Land bertan (1964'an batere ez).

Bonn'ko Parlamentuan esan omen zuan Kiesinger'ek NPD'n garaipen hau zala-ta (eta ezkertiar ikasleak dirala-ta ere) estranjeria ikaratuta dagoela eta Alemania'k, gerraoste hontan, ozta-ozta landu ta lortu duan izen-on guztia galtzen omen du hoiegatik.

Land'etako 7 parlamentuetan exertzen dira Von Thadden'en jarraitzaileak.

«NPD: honatx arerioa» esan omen du Kiesinger'ek.

NPD honen eragiña, hedadura, ahaltsunak eta barne-egiturak eza-gutzeko, biziro egoki datorkigu Jose Azurmendi'ren idazlan hau.

Zuzendaritzak

Azkeneko bolaran bazterretan sortu zaizkigun desekilibrio politikoaren artean gutxi atera digute Alemania-ko neonazismoak hainbat zalaparta. Hontan behintzat boz berdinak altxatu ziran Washington-en eta Mozku-n. Neonazismo edo nazismo zaharraren pizkunde soil dala hau NPD (Nationaldemokratische Partei Deutschlands) Alderdia da. Gutxien uste zanean eta Alemania behin betiko domatuta zegoela uste zanean, Land-etako (alegia, Herrialde federaletako) Parlamentotik alkiak irabazten hasi zitzaigun eskubialdeko Alderdi radikal hau.

NPD lehenengo aldiz Land-eko Parlamentora iritxi ta urrengo egunean alemanek Telebixtan ikusi ahal izan zituzten Amerika-tik Errusia arteko egunkari ta gobernariaren komentarioak. Kasi komentarista guztiak Hitler-en pizkundeaz mintzaten ziran. Bainan zer da NPD? Oraingoz handiago da atera duen arrabotsa, ta agian signifkazioa, berez ezer dana baino. Herriarteko eskandalo hau ikusirik, ba zan hasieran Alemania-n Partidu hau debekatzeko lege proiektu bat, bainan ba dirudi erretiratu egingo dala, NPD-ren martxa frenatu dalako batetik eta, bestetik, proiektuan dagon elezio sistemaren aldaketak berekasa desagertu eraziko lukealako. 1967-garrenaren azkenaldera eskubialdeko radikalismoa beheraka hasi da, eskerrekoa irabazten hasi dalarik.

NPD Alderdiak 28 milla lagun dauzka. Hoetatik 9.800 (beraz 35 %) poliziak fitxaturik daude. Ots, nazismoaren denporan NSDAP-koak izandako dira (ots: Alemania-ko langileen Alderdi nazionalsozialista - Hitler-en Partidua) edo gerraostean debekatu ziranetako beste eskubialdeko erakunderen batean egondakoak. NPD-ren Buruzagitza, berriz, jende **zikinaren** eskuetan dagoela esan leike: Buruzagitzatik 73% daude fitxatuta eta Herrialde federaletan Alderdiak dauzkan funtzionarioetatik 67% berebat fitxatuak dira. Ikus ditekeanez, ba, orain arte behintzat erremin eta nostalgiko zenbaiten **refugium peccatorum** dala dirudi NPD-k, besterik ezer baino gehiago.

Halare, ikaragarria da Alemania-n NPD-ren kontra egiten dan propaganda. Eta batek ez daki holako zerbait sanoa dan, herrien sikologiari diotena egia bada behintzat. Nazismoaren pizkunde hau ez dala hain ustegabeko, esan leike, eta harrigarria hain berandu agertu izana dala, Alemania-ren joanaldi urbilenari begiratu ezker. Gerraostea ikusiaz, eta alemanek oraindik —demokraziara ohitu ta edukatu behar omen dutela ta— egiten dituzten zenbait gauza ere (Aliadu ziranen presiopean) herri bat edukatu ez baino humilatu ta erreboltatu eragin dezaketanak dira, noski. Behinolako nazien kontrako prozesuak

## KRONIKAK

Telebixtan ematen dira, ilabetero ta kasi amabostero ematen dira Telebixtan konzentrazioelaietako edo gerrako dokumentalak (hoek gutxitzen doaz, halare), rusoeek naiz polakoek Alemania naziri buruz egindako filmen serialak, judeguez mintzatzen dira Telebixtatik egin zitzaizkienak kontatzen, arabe-israeldarren gerra tximistakoan, adibidez, judeguez alemanen obligazio bezala eskatzen zuten laguntza, etc. Sorgin eize bat bihurtu da nazi ohien bilatzea (Amerikatik, Afrikatik ekarzen dituzte, amaika aldiz errugabe diran jendeak), Lübke Presidenteak naziekin ezer ote zuen garbitzeko sekulako eskandaloak izan dira alizkarietan eta Telebixtan agertu behar izan zuen Presidenteak periodixtekin eztabaidan, eta horrixe buruzko Parlamentoaren Biltzarrea telebixtatu egin zan oso osorik. Bai, guzti hori normala ta egokia izango da bainan, gehiegi! Gehiegi, batez ere, egunero inperialismo ta militarismo akusazioak entzuten egon behar duenarentzat.

Guzti honen frutuak kontradiktorioak izan dira. Gazteriak legendako personaje urrutian galdu bat bezala ikusten omen du Hitler. Bainan bestetik, soldadu guztien artean egindako inkesta batek salatu duenez, gazteotako 80%-k nahiago izango luke beste nunbait jaio baltz eta ez Alemania-n.

Egoera honen kontrako erreazio bat da, dudarik gabe, NPD-ren indarra. Zenbait nazi-ohi ere Alderdi hontan babestu dala berezko da. Eta ekonomiak izandako ezbeharrek beste zenbait deskontentu ta kontentagaitz erantsi dizkiola ere, zer esanik ez. Horixe gerta diteke NPD-ren arriskua.

Eskubialdeko estremista taldeak 20-tik gora dira Alemania-n. Guzti hoetako 72% lagun NPD-k biltzen ditu. NPD-k nazismo akusazioa ukatu egiten du, jakina! Alderditik kanpora bialdu ditu antisemita agertu diran guztiak, bainan nazismoa ez da antisemitismo soil. Eskandalo ta prozesoa asko izan ditu, ta danak galdu. Hala deklaratu du azkenean Von Thadden Buruzagiak ez duela sekula gehiago auzirik jarriko egunkarien kontra, justiziarik ez dagon artean.

Herriarteko politikari buruz bi ezaugarri ditu orain arte: Alemania-n iritzi jenerala zanaren kontra, arabeen alde ta israeldarren aurka agertu zan; eta Alemania-ren batasuna aldarrikatzen dute sosegurik gabe ta egoerak errezten dien pathos tragikoenarekin. NPD kapitalismoaren kontra dago ta komunismoaren kontra, zer esanik ez. Bion arteko sintesi ta gaineratze omen da beren programa. Herrialde federalesko Parlamentoetan, nazi ohien kontrako legeak borratzekotan doaz

beren ahalegin guztiak, bainan proposamentua bozeman dan guztietan galdu dute.

Herribarneko politikaren beste zenbait puntu alde batera utziko ditugu.

NPD-ren kolkobarnea ezagutzeko, lehenik ango jendeari begiratu beharko litzaioke. Ze, politika edozein joeratan egin ahal izateko arrazoiak ez dira inoiz falta. **Das Manifest der NPD** edo oinarri agirieri begiraturik, berriz, ez da ezer berezirik agiri. Jeneralidade asko, sententzia borobil gehiegi (Alemania alemanentzat — gaurko denporari gaurko politika, etabar), ta gíar gutxi.

Europear porrokatu agertzen da NPD. Bainan Europa-ren batasunik irixtekotan, Alemania batu behar da aurrenik: lehenengo Alemania, gero Europa. Modari jarraituz, amerikanoak zigortzen dira: Europa ez da libre, ta batez ere Alemania-rekin kolonial politika itsusiena egiten ari da. Eta komunismoa: indarkeriaren amenazoa mugetan dauka. Herriarteko politikan autonomia eskatzen dute Alemania'rentzat, eta herribarnekoan ez komunismorik eta ez kapitalismorik. «Gaurko gizarte jakintzarentzat gauza garbia da antxinako klase burruken ipuinak iraganak dirala»... Marxismoa «pipiak jotako ta autsak betetako ideologia» joan dan gizaldikoa da. Europa Alkartuan ez da Errusiarik sartuko, ze Estadu hau Europa bezain Asia baita.

Sindikatoak onartzen dira. Bainan sindikatoak ez dute ezertarako politikan zer sarturik.

Aberriaz mintzatzen danean berotzen zaio batez ere NPD-ri oratoria. Gaurko gobernari ta politikoeak aberriari traizioa egin ta irakasten dute. Zorigaizto guztien kulpia Alemania-rena bakarrik dala sartu nahi diote buruan herriari. Hitler-en aurretiko aleman kondaira guztia honen preparazio bezala irakasten da eskoletan, etc. «Fuera hainbeste gezurrekin ta kuku enbuste horiekin egiten diguten millarden txantajea!».

(Momentu hontantxe, kronika hau idazten ari naizela, NPD-ko laun bat ondoratu zait, eta Alemania herri libre ta sendo bat egin dezakean bakarra NPD dala progatzen alegindu da. Alemania-ri egiten zaizkion injustizia saila xehatzen du. Azkeneko gerrarekin txantaje bat egiten ari omen zaio Alemania-ri. Morgenthau planaz mintzatu zait ere —Cisneros-ek nafarrekin euki zuen asmoaren antzeko plana da hau—. Whiskey bat eran dugu ta joan da).

## KRONIKAK

Gerrakoan egindako kalteengatik ez xentimo bat gehiago inori pagatzeko, eskatzen du NPD-k. OTAN-go truppen erretiratzea ta armada aleman indartsu baten eraketa. NPD-k pakea nahi du, bainan libertadean, ez bildurrean eta batez ere, pakea nahi duten erabakimentu berdin zindoz esijitzen dute «indarbidez lapurtutako lurraldeen» itzulpena. Oder-Neisse muga ez da Alemania-rena, injustiziarena baizik.

Nazismo jatorrenaren garaietan bezalaxe kondenatzen dira Kafka, Brecht, Chagall, etc. Bert Bhecht gaurko gobernarien politikaren sinbolizat estimatzen dute.

Ikusten denez, filosofija ez berri ta ez zaharrik agiri digu NPD-k Nazismo ote dan? Gaurkoz ez, ez da ezer. Gehienez ere nazismo nahia. Bainan hori, seguru asko, bai. Egia da berekasa il ta itzali ditekeala, ta bide hori daramala dirudi, bainan nola gerta ditekean denporarekin indartzea ere, kontutan hartzekoa izango da. Horrelaxe hasi baitzan Hitler ere behinola. Horrek larritu du mundua, hain zuzen, eta ezin uka larritzeko jain ba danik. Horrek larritu ditu, inor baino gehiago, alemanak berak. Gaurkoz deskontentua aprobetxatzen eta mantentzen du NPD-k, hoek baititu oinarri. Eta hortantxe datza Hitler-en hasiera garaiekin paralelorik bildurgarriena. Herriarteko politikak, segun hau nolakoa izan, erabaki dezake einerik handienez NPD-ren politika, nik uste.

Agian Wastington-en eta Mozku-n jantziak urratu ez dan beste zerbait egitea bidezkoagoa izango litzake: aspaldion pakea firma dezaten eta egoera normal batean utz dezaten zai dago Alemania. Hainbeste presio politiko ta ekonomiko suportatzen. Hainbeste limitazio ta kontrol sofritzen. Deskontentuak sortu zuen Hitler, eta beronek sortu du NPD-zati on batean. Bainan deskontentuaren kausanteak eskandalizatu egiten dira Alemanian 28.000 NPD-ko lagun badaude. Birtartean, ordea, Niedersachsen Herrialde federalean bakarrik 8.000 nazitik gora izan dira gerra ezkerko prozesatuak eta judizioak ez dira kastatzen. Eta hain zuzen hementxe dago NPD sendoena, hementxe dauka Buruzagitza.

Jose AZURMENDI

## Zientzi oihartzunak

### ARGI BERRI BAT GARAUNAREN IHARDUKETAZ

Aurten, Epailak 11tik 15erarte, 78 jakitun egon dira Parisen garaunaren misterioak argitu guraz. Haietarik sei, Nobel saridunak ditugu. Beren gaia hauxe izan da: «Garaunaren aztertzea ta giza portakera».

Jaun argi guztion artean puntu asko arakatu egin dira eta geure buruaren mekanismuen berri ezezagunak agertu.

Azterlari guztienartetik sobietar eskola oso nabari izan da eta errusiarren teori berriak erras on hartuak ditugu sail askotan.

Anatomiaz giza ahalmenak lekutu egin dira garaunaren arloetan. Hortaz, hiru atal bereziak aurkitu dira:

Lehenengo atalean begiratze eta arduraren tegiak dagoz. Berau hondatzean edo geixotzean kanpotiko berriak hartu egiten dira, baiña haiei dagozkien erantzunak ez dira sortzen. Esate baterako arriskuaz konturatu bai, baiña ihes egiteko ahalmenik ez da eragiten horregatik.

Bigarren zati edo atala askoz ezagunagoa da. Beronegan hartu egiten dira kanpotiko eragifñak. Berton aurkitzen zaizkigu optika, akustika eta ikumen tokiak, bakoitzak bere leku berezia duelarik.

Hirugarren atala interesgarriena zaiku, hots giza-pentsakerarena. Atal hau aurrekoa da ta geure pentsamentuen eragille ta sortzaillea dugu.

Aspaldian uste zan aurreko alderdi hau alferra zala eta baliorik bat ere bakoia, orain berriz, bere benetako zer egifña aurkitu diogu.

Toki hau geixotzean pertsonaren zentzua ez da hiltzen, baiña bere pentsakera hurritu egiten da guztiz. Halako pertsona orainaldian bizi behar da, gero zer egingo duen ez baitaki, buruaz ezin baliatuta.

## Haurren gizontzea

Irakasle Leontiev jaunak, Moskuko Unibertsitatekoak, hauxe diosku: «Haurra eta mutikoa gizondu egiten dira giza pentsakera nagusiaren moldeak eta bideak beraganatu egitean». Haurrak ez dira berez gizon, gizongai baizik. Ez da egia haurrak gizartearen moldeetatik ibiltzen eta pentsatzen ikasi behar duenik; haurrak beretu egin behar ditu berauek, beragan sartu behar ditu. Inor ez da ohitzen hizkuntza baten gramatikaz baliatzen mintzatzeko, hizkuntza baten gramatika edo erabilkera «beraganatu» egin behar du, soilki.

## Irakaskintza berri baterako lehen pausoak

Zientzilari hauengandik aterata, irakaskintzarako programa berri baten antolatzea beharrezkoa dala ikusi da. Daduzkagun programak arrunt nekezak eta desegokiak dirala esan leiteke garaunaren benetako ibilbidea ikusita. Hizkuntzalaritzan eta matematikan, adibidez, saio berriak egin dira zortzi urteko haurrekin.

Lehen pentsatzen zan lez, mutikoez ezin zutekean gauza astraktorik eta hortik hasita gauza konkretotatik irakasten hasten zitzairen.

Orain ordea, hitzen eta zenbakiaren itxuraz eta ikuskeraz zirriborrotu bage, gauzen arteko hartu emanak eta legeak irakasten dizkiete, hortarako haurrek berek ondo ezagutzen dituzten gauzakiakin baliaturik. Honela erdi banatu, bikoiztu, gehitu, hurritu eta abar. Geroxeago, elkarbide eta hartu emanen izanaz konturatuta gero, letrak edo zenbakiak darabiltzate, matematikako operazioak aguroago ikasi ta erabilliaz.

Hontatik argiro ikusten dana hauxe da: zenbat eta geure garaunaren iharduketa edo funtzionamentua ezagunago, erraxago balio izan ahal izango gerala beragaz kultur hartzeko, bere jokabidearekin batera joanda.

## ASTRONOMIA

### Kuasarrez besteko irradiatze-iturriak:

Uzaroan ixilik gordeta edukita gero, Cambridgeko aztertokiak bere berri sifetseziña jaurti digu. Ba dirala izar berezi batzuk irrati

seiñale beti berdiñak jaurtiten dituztenak; hots, 1,337 segundutik behin 0,3 segunduko seiñaleak.

Nundik datoz seiñaleok? Nork egiten ditu? Izar nano zuriengandik edo neutroizko izarrengandik ailegatzen zaizkigu, ala bestalde, beste izaki adimendunek bidaltzen dizkigute?

Jakiña, hemendik 2.000 milloi milloi kilometrotik halako seiñale iturririk egotea gauza arraroa da benetan. Jakitun batzuk ametsetan hasi ziran eta «gizontxo berdexkak» edo «Little Green Men» dalako kontua erabili zan bala bala, erdi barrez eta erdi kezka.

Dirudenez, eta «zientzi antzeko» nobelazaleen zoritxarrerako, fenomenua naturala da, are 1.963'ganean aurkitu ziran kuasarrak berak baiño bakanago diran beste izarrek sortu eragiña. Gaiñera lehengo irrati seiñaleak hartu ziranetik honera, beste hiru irradiatze iturri aurkituak dira, guztiak frekuentzi berekoak. Zelako izarrek zaizkigu berauek bada?

Izar zahar bat, bere hidrogenoa ea guztiz ahiturik, eskastuten hasten da hil baiño lehenago. Fenomenu hau itzala izan daiteke eta orduan izarra lehertu egiten da: «super noba» bat zaiku orduan. Baiña lehertze ondorean, hondakiñak elkar daitekez, beste mordo txikiagoak egiñaz. Han dagoken presioagatik protoiek elektroiak irunsten dituzte, neutroiak sortu eraziz. Hauxe dugu neutroizko izar berezi bat. Beragan dentsitatea milloi bat toneladakoa dateke zentimetro kubiku bakoitzean.

Izar zaharragan lehertzerik baldin ez baledi, izarra zahartasunaz hil leiteke, gero ta astunagoa bihurtuaz, orduan bere dentsitatea tonelada batetik 10era izan daiteke  $\text{zm}^3$ tik, ta bere haunditasuna gure Lurrarena bezalakoxea: hauxe dugu «izar nano zuri» bat, hamar bidar haundiagoa horratio neutroizko izarra baiño.

Zelako izarrek dira irrati seiñaleak igorten dizkigutenak? Neutroizkoak? Nano zuriak ote? Azken esana ez da oraindik azaldu. Astronomilari asko hari dira hontan eta dirudenez luzatu bage erantzunen bat emango digute.

Xabier KINTANA



## *Konbiķzioa eta erresponsabilidadea*

Baiņa zertako sartzen naiz itsas hondar gabe hunetan?

Axular

Les utopies apparaissent comme bien plus réalisables qu'on ne le croyait autrefois. Et nous nous trouvons actuellement devant une question bien autrement angoissante: Comment éviter leur réalisation définitive? ...Les utopies sont réalisables. La vie marche vers les utopies. Et peut être un siècle nouveau commence-t-il un siècle où les intellectuelles et la classe cultivée rêveront aux moyens d'éviter les utopies et de retourner à une société non utopique, moins «parfaite» et plus libre.

Nicolas Berdiaev

Ez naiz luzera haundiko barku jabe, oraingo huntan pasa nahi dudana itsasoan sartzeko. Bainan nun inorantzia baino bela hobeagorik abiada bizian dibagatzeko? Hau da ezjakintasunaren aurpegi ona: ausardia... Nijoadin ba, itsas hondar gabe hunen barrena, jakindudiaren txikoteak utzirik eta intuizioa abiada guzian jartzen dutala.

Bigarren galdera egin baino lehen egoki eta bidezko da lehena egitea. Horregatik iruditzen zait benetan interesgarria Rikardo Arregi egiten ari den lana. JAKIN'en 25'gn. alearen 13'gn. horrian, ezker-tiarren eta eskuindarren bereizkuntza egitean gizonaren konzeptzio diferenteetan eta moldeen influentzian gehio edo gutxiago sinistean mugatzen ditu.

Nire iritzi eztaio arrazoirik falta; bainan gaur beste galdera bat ezarri nahi nioke aurretik. Moralez besteetaz arduratzera eta politikaz, ekonomiaz arduratzera behartuak gaudela diote. Hau ez dut diskuti-

tuko. Zein moraleri jarraituz bainan? Moral batek esijitzen digu adibidez politikan sartzea, moral batek bultzatzen gaitu. Zein moralek ordea? Zein moral jarraitzen du gizonak politika bidea aukeratzean?

Abstrakzioak eginen ditut. Har ditzadan bi moral mota, Max Weber'en estilora: Konbikzioarena eta erresponsabilidadearena.

Konbikzioaren morala jarraitzen duena, beren idearen alde burrukatzen dena izanen litzake, bere burrukaren efeto lateraleri begiratu gabe. Bestalde, konbikzioa duen politikoarentzat, moral horri jarraitzen dionarentzat, amets politikoa lortzea baino inportantzia gehiago du bere konzienziarekin bekatuan bizi ez izateak.

Bestela da erresponsabilidadearen morala jarraitzen duanaren kasua. Hemen ondorenak dire nagusi eta lanak alperrikakoak, objektiboak ez badire betetzen.

Agian «abstrakzio gehiegi» esanen didazute edo ta Leo Strauss'ek esango lukean bezala, ez dagoela gizon moralunik konbikzioari bakarrik jarraituko dionik. Egia, ez du inork bere eginkizunen ondorioetatik desinteresatzeko eskubiderik. Bestalde, konsekuenziak osatzen dute, kontradizitu gabe, eginkizunaren zera. Hitz batean: konbikzioengatik burrukatzen gera eta ondoren batzuek lortzeagatik.

Raymond Aron'ek arrazoï hauek sinpleak direla dio, eta bi moral horietaz hitzegitean ez dela nahi esan —ez Max Weber-ek beintzat— erresponsabilidadedunak ez duela konbikziorik ezta konbikzioari jarraitzen dionak erresponsabilidadearen sentidurik ere, baizik eta-gorago esan dutan bezala, azken analisis batean, bi joerak kontradizitu ditezkeala eta batek nahiago duela konbikzioen afirmazioa, esitua baino eta besteak konbikzioak sakrifikatzen dituela esituaren beharrera; bai bata eta bai bestea moralak izanik konzepzio bakoitzaren barnean.

Horra hor ba nire lehen galdera: Lana egitera behartua bagaude —hori izanen litzake lehendabizikoa, bainan gaurko utzi egiten dut— zein moralaren barnean sartzan gera? Zein moral jarraitzen dute ezkertiarrek eta zein eskuindarrek?

Ezkertiarrek errealitate berri bat erakarri nahi digute. Ezkertiarra ameslari da. Erreboluzionarioa askotan erromantiku bat. Hitz batean esateko, ezkertiarrek konbikzioari jarraitzen diote, erresponsabilidadede gehio edo gutxiagorekin, bainan konbikzio moralaren jarraitzalle bezala klasifikatu ditezke.

«Bihar eguneko dirurik gabeko gizarteak» utopi izan ala ez izan, bizitza asko utzi ditu bidearen bazterrean eta «biharko egun» horre-

gatik eta lortzeko itxaropen haundirik gabe, uzteltzen dire zenbait gizon kartzela barnetan, eginkizuna betetzeak ematen duen pake lilurakin.

Gure hartean ez da zaila ezkertiar bateri «ez diagu lortuko bainan gurea eginkizuna betetzea duk» entzutea.

«Bihar eguneko dirurik gabeko gizartea», «Gizona gizonagatik» predikatzen duen doktrina utopikoak izanik ere, iruditaz dituen regimena errealitate egin da eta egiten ari da azken urte hauetan; askatasuna konbikzioz zutenak diktaduraren erresponsable egiten ari dire. Zergatik eta nolaz? Aurrerago saia nadin galdera haueri erantzuten.

Gizon bakoitza ez dago barrendik ona biurtzerik. Hori diote eskuindarrek eta berez dela, den bezalakoa. Eskuindarrek ekintzak nahi dituzte. Gizonak, bere irabazieri begira ez bada ez du kolperik joko. Enpresa da beren agiria, konsekuenzi guziekin. Gizona neria nire eta zurea ere nire esateko jaio da, samurtuz, nirea nire eta zurea erresetatzera behartu liteke, inozokeria beraz nirea gure esatera eraman ditekanean uzte izatea. Egia da kapitalista, pivota, aritzen dela sarritan bere dotrina «nirea zure» dela esplikatu nahian; Nik zugandik nire egindakoaren apurra emanen dizut esan beharrean etab.

Eskuindarrek, ezkertiarren konbikzioak utopikotaz artzen ditu, norbaitzuek gustokoak izango baditu ere eta gizonaren askatasuna mugatuz, egitazko ondasuna datorrela pentsazen dute. Ondorenak balio dute, erresponsabilidatea da eskuindarren morala.

Itsusia edo polita izan, berdin da, egurrak mugitzen du gizona... eta horra hor faszismoa.

Ez da ez egokia kapitalismoa, bainan besterik ezinean txukundu dezagun, kooperatibak eta langille koloniak eginaz eta horra hor reformismoa... Eta horla aterako genituzke abanikoa osazen duten beste mota guziak.

Askatasunaren predikatzaillak diktadore biurtzen direla esan dut. Proletarioen diktadura geroago burokraziaren diktadura. Nola?

Marx'ek zionez kapitalismoa reformaren seme da. Weber'ek protestanteak eta behaien artetik kalvinistak ekarri zutela zion. Nire iritziz ez da erlijioa berez inportantzia duena, baizik eta pasatzeak, aldatetak. Katolikotasunetik protestantismora aldatzeak ekarri zuen kapitalismoa Ingalaterra'n. Shock batek.

Kasu huntan berdin esan ditekete. Esplika nadin.

Nire iritziz politiku batek poterean dagoanean, ezin eraman du konbikzioaren politika —Jean Paul Sartre'k pagatu zuen «Les mains sales» teatruan eta «L'engranage» zinema gioian hori esatia— bestalde Reboluzioren lanik gaitzena bein eginik geldiaraztea da edo nahiago baduzute, armada utzi eta besteak aurrera eramatea: industrialia, kulturala, nekazaritzari dagokiona... Bata bota ondoren bestea jasotzea, «Campesinos, os aplasta la caña» esan ondoren, komiteak presentatzen dituzten prolemak soluzionatzea.

Cuban esate baterako, «Che» Guevara'k ezin izan zuen «shock» hori sofritu, Fidel Castro sofritzen ari da, erresponsabilizatzen eta erresponsabilizatzeko horren ondorioak cubatarrak sofritu beharko dituzte noski...

Ezkertiar ameslariak, ametsa, zati batean beintzat, errealtate egirik ikusten du, bera da erresponsable, eutsi egin behar dio. Eusteko, orain errealtate aurrean, bere konbikzioengandik oso urrunduta dauden medioak enplegatu beharko ditu, egitazko politiku bihurtu da, konbikzioaren eta erresponsabilizadearen artean aurkituko da, shock hori ez da asko itxoinaraziko. Hunek erakarriko ditu erakartzekoak.

Lehen esan dut azken analisis batean, bi moralak ondo bereizten direla. Gehienetan batak edo besteak tinkatzen du gehien eta beste batzuetan berriz konfunditzen.

Cubari begira adibidez, jende asko sentitu da ezkertiar. Eskuindar askok «Herri horietan ez dago beste egiterik» diote. Rikardo Arregik dion bezala sozialismoa modan dago, baina inperialismoari begira, reboluzio industrialia pasa ez duten herriari begira. Bi moralak batu egiten dire eta sozialismoa eskuindarrek ere onartzen dute, eboluzioz kapitalismoa jarri ezin ditekenez lekutan.

Dena dela atzo utopi zirenak gaur alderantziz errealtate dire eta gero eta gutxiago sinesten da alde onez jartzeko posibilitatean.

Horregatik jenerazio berria, bere ametsak zapaldua arkitzen da eta horla batzuek ain ideiala izango ez den, baina askatasun gehiagoko sistema batean ari dire pentsatzen. Besteak, zoritxarreko ametsa behar duenak bizi ahal izateko, besteok amets berri bat asma beharko dugu, errealtatearengandik urrun bizi ahal izateko... Baina hori, hori ez da soluzioa.

# AGIRIAK

## FRANTZIA'KO KOMUNISTA TA SOZIALISTEN OTSAILLAREN 24'KO AGIRIA

*Frantzia'ko Partidu Komunistak eta Ezker Demokrata ta Sozialista Federazioak 1968'gn. otsailaren 24'an agiri bat zabaldu zuten. Agiri hortan bi formazioen arteko iritzi berdiñak eta desberdiñak azaltzen dira. Ez da, ordea, katalogo huts bat, pentsatu ditekenez bezela. Inportantzi aundikoa da agiri hau. Epe motz batean gobernuan arkitu ditezkeen formazioen iritziak biltzen dira bere baitan.*

*Agiriak iru zati ditu Lehendabizikoak "Instituzioak eta libertadeen defentsa" daramaki izenez. Bigarrenak "Ekonomiaren eta gizartearen prolemak" eta irugarrenak "Atzerrirako politika".*

*Lehendabizikotik lerro batzuek bakarrik azaltzen dira hemen.*

*Bigarrenkoa da luzeena agirian. Guk zati horren bi numero azaltzen ditugu: hirugarrena ta zazpigarrena.*

*Hirugarrenkoa, berriz, kasikan osorik azaltzen dugu.*

### **Lehendabiziko partearen bukaeran:**

*"Bi formazioak ados dira elkarrekin aztertzeko ea zer neurri artu behar liraken ezkertiar gobernu bati bere programa betetzea galarazteko era guztietako saiaketak ezerezteko."*

### **Bigarren zatian, III'gn. atalean:**

*3.—Sail publikoak eta naziotutakoak, Planaren tresna esentzialak baidira, demokrataturik, indarturik eta gaullismoaren aukera ekonomikoen kate-*

*tatik askatuta, ekonomia guztiaren bultzatzaille eginkizuna zabaldu behar du.*

Ezker Demokrata ta Sozialista Federazioak eta Frantzia'ko Partidu Komunistak uste dute aginte publikoei ekonomiaren muiñeko sailen jabetza edo kontrola ematea inportantea dela.

Espiritu hontan oraintxetik armamentuaren eta espazioko industrien naziotzeaz erabakitzen dira.

Ezker Demokrata ta Sozialista Federazioaren iritzia da oraintxetik negozioetako banka-etxeak naziotu behar dirala eta Inbersioetarako Banka-etxe nazional bat sortu behar dela, kreditoreen bitartez Planari enbarazurik egiteko posibilitaderik ez dedin gelditu.

E.D.S.F.'k pentsakizuna da Estaduaren kontrolpean jartzea, enkuadramenturako neurri egokien bitartez, errealdadean monopolio diran industriak, siderurgia bezela edo zuzenean diru publikoetatik bizi diranak, informaziokoak eta farmazeutikoak. Federazioak erreforma sakon hauek legedi anti-trust baten bitartez osatzea pentsatzen du, honela posible izango baida erantzun eraginkor bat ematea enpresa batzuk bere finantzen indarragatik abusatu lezatekenak monopolioeko egoera bat sortzerakoan edo Planak erabakitako xedei enbarazu egiterakoan.

Herriaren ekonomian leku zabal bat gordetzen duen sail pribatu nazioaren interesarekin konforme diran xedeetara zuzentzea pentsatzen du.

Frantzia'ko Partidu Komunistak uste du kreditoreen kontrol publiko osoa ez dela posible erabatera deposituko ta negozioetako banka etxeak eta seguruko konpainiak naziotu gabe, bestela sail hauetan monopolisten indarrak iraun egingo du edo berrituko da. Derrigorrezkoa deritzaio naziotze hau ekonomiaren muiñeko sailletara zabaltzea, nazioaren aberastasun inportanteenak sortzen dituztenak eta monopolista indarrentzat oñiarriak jartzen dituztenak baidira: elektronika, aeronautika, petrolio, atomika, kimika (farmazia, beraz), siderurgia, automobilla, sail hauek nazioaren bizitzan duten garrantziagatik, monopolista erabiltetan duen malthusiano kutsuagatik, gero ta gehiago sufritzen duten atzerriko dominazioagatik, gero ta gehiago bere diruak finantziantze publikotik datorrelako.

Sail hauek naziotzea monopolioen eskuetatik kentzea da; honela nazioaren maillan batutzen da kontrol demokratikoaren menpean; bere aurre-irapen tekniko ta ekonomikoa laguntzea da; nazioaren askatasunean kanbioaren eta kooperazioaren desarrolloa posible egitea da: berak Planari ematen dion inportantziak sail pribatua nazioaren interesaren neurrian jartzen du.

*7.—Regioarekiko politikak nazioaren alderdi aundi baten subdesarrolloari egin behar dio frente, gaullisten aginteak oraindikan ere astunagoa biur-tutakoa.*

Planaren baitan integratuta nekazaritzaren obetzea ta regio hauen industrietzea jarraituko da, honi zera dagokio:

## AGIRIA

- nekazari errenten politika bat bizi-mailla igo dedin;
- produzioko kooperatibak indartzeko nekazari esturkturen politika bat eta sortu beharko diran industri esturkturena;
- komertzio ta artesanirako esturkturapea azitzeko neurriak;
- enpleoaren politika bat alderdi hauetatik jendeak iges egin beharra gelditu erazitzeke.

Eginkizun guzti hau ezin diteke pentsatu esturkturen aldaketa sakonik gabe eta estaduaren laguntza indartsurik gabe, finantzen zorroztasunean eta manedaren artifiziosidade guztia baztertuaz.

Nolabaiteko deszentralizazio politiko ta finantziereoarekin lagunduta joan behar du, hiri, departamentu, ta regioetako instituzio demokratikoen sendotzearekin.

## Hirugarren zatiak izenburu hau daramaki: ATZERRIRAKO POLITIKA

### I

1.—Ezker Demokrata ta Sozialista Federazioak atzerrirako politikak erabatean hiru xede bete behar dituela uste du:

- pakearen. antolaketa;
- eurapear elkartasan politiko bat jaso;
- Hirugarren Munduarekin artu-emanak gero ta zabalagoak biurtu, eta xede hauetako bakoitza egiztatzeko derrigorrezkoak dirala dagozkien esturktura politiko ta ekonomikoak jasotzea.

Pakearen antolaketa batez ere zerean finkatzen da, nazio-arteko antolaketan arbitrajeak burruka ta etsaigoak konpontzea, batez ere Nazio Batuen antolaketak. Hortarako, hauek bere erabakiak estaduei errespeta erazitzeke medio egokietaz jantziak izan behar dute. Baita ere, pakearen antolaketa hau desarmatze jeneral eta kontrolatu batean, eta guztientzako baliokoa izango den seguridadeko xistima baten eraketan finkatzen da. Ezker Demokrata ta Sozialista Federazioak ez du beñiere pentsatu "gerla otzean" jaiotako militar elkarte etsaiak pake iraunkor baten sustraia osatu dezaketarik. Pederazioa erabakita dago elkartasan militar hoiaren ordez guztientzako baliokoa izango den seguridadeko antolaketa eta Herrien arteko kooperazio paketsu batzuek jartzeko kondizioak sortzeke batez ere interesatuta dauden Estadu guztien Biltzak esplikatzaile bat probokatuaz. E.D.S.P.'rentzat ikaragarritzko inportantzia du eurapear elkartasan politiko bat jasotzeak. Seien Europa izango litzake honen muiña. Munduko bi Aundien aurrean Europa'ren askatasuna aseguratzeke neurrian dagoen medio bakarria den elkartasan hortan gure Herria integratzea dela modurik zeatzena Eguzkialdea ta Mendabala elkargantzeke eta orain arteko bloke militarren xistimaren ordez seguridadeko era berri bat ezartzeko. Mundu guztian eta Europa'n situazio berri bat ezartzen ez den bitartean, Frantzia'ren aldetik bakarrik bere oraingo aliantzak, eta batez ere Atlantikoa, arriskugarria litzaiokela iruditzen zaio.

Europa jasotzeak Hirugarren Munduko Herrien prolemak konpontzen lagunduko du abertzalekeriaren eta kolonialismoaren ondorenak ezereztuaz eta askotan berekoikeriaz beteaz dagoen industrietutako Herrien ekinaldien ordez laguntza kolektibo bat eratuaz.

E.D.S.P.'k europear integrazioa bizkortzeko neurri konkretoak proposatzen ditu. Berak oraingo Europa'ren lurraldeen zabaltzeaz erabakitzen da (batez ere Bretaña Aundia bere baitan onartuaz), elkarrekiko sailak ugarituaz (besteen artean, planifikazioa, dirua, teknologia, herrikoi osasuna) eta aginte politiko baten sortzeaz, guztien botuaz aukeratuko den Parlamento baten bitartez. Jasotze honek bere askatasun ekonomiko ta politikorako Europa'ri medio egokiak itsastea ahalmenduko du eta, ekonomiaren planifikazioaren bitartez, etenik gabe hedadura aseguratu, aberastanunen banaketa zeatz batekin batera, kapitalismoaren konkurrentzi joku askera ezin utziko dana. Honela desarrollatutako Europear Elkartasuna merkatu zabal bateko konsumitzaileen beharrak aseko ditu. Orain ezkerroztik posible azaltzen da Erroma'ko Tratatuaren bitartez jaio ziran instituzioei eta sortu beharko diranei aginte neurtuak baiñan benetakoak kontrol demokratiko baten mendea ematea.

2.—Frantzia'ko Partidu Komunistak, era berdiñean, abertzalekeriaren barkatasuna eta nazioaren askatasuna baztertzea ukatuaz, nazioaren askatasuna dela atzerri gaitako politika demokratiko baten oinarririk sustraituenetako dela uste du. Herriaren seguridadeak Frantzia'k erabakiak bere buruaren jabetasun osoan artea eskatzen du.

Pake gordetzeko nazio-arteke arbitraje baten aldeko izanik, P.P.K.'k uste du arbitraje honek Nazio Batuen Kartaren aplikazio zeatza izan behar duela oinarriz bezela.

Tratatu Atlantikoa ez dela behar bere bukaera 1969'gn. irixten danean dio Frantzia'ko Partidu Komunistak eta era guztietara, Frantzia'k orduan tratatutik irten egin behar duela. Atlantiko Elkartea gaur egun Estadu Batuak mendartuta dago eta bere baitan egoteagatik gerta ditek gure Herria gela batean sartuta arkitzea bereak ez diran interes batzuegatik, amerikanoen imperialismoarenak baizik, honen politika agresiboak eta munduko jendarmearen papera egiteko asmoa, Herrien askatasunarentzat eta pakearentzat egunetik egunera garbiago azaltzen diran arriskuak adierazten ditu. Posibilidade hori ezinezkoa biurtu behar dugu. Bi bloke militarak batera deseginak izatea espero den bitartean, eta hortarako ahalagin guztiak egin behar dira, Frantziaren interesa blokeetatik at izatea da. Hone-la berak bere askatasun osoa lortuko du guztientzako seguridadearen eta nazio-arteke kooperazioaren alde zeregin eginkor bat izateko, batez ere Europa'ko Herri guztiekin diskriminaziorik gabe.

Frantzia'ko Partidu Komunista Europa demokratiko ta paketsu baten aldeko da. Derrigorrezkoa uste du Frantzia Europa txiki kapitalistan ez gelditzea —seikoa, zazpikoa edo gehiagokoa izanagatik ere—, baizik eta elkarrenganako abantaila oinarriztat arturik Europa'ko Herri guztiekin burre artu-eman ekonomiko ta teknikoak ugaritzen eta sendotzen saiatzea. Frantzi demokratiko batean ekonomiaren sail inportanteenak naziotzeak posible egingo luke, besteen artean, Europa'ren mallan kooperazioko proiektuak.



## AGIRIA

to aundiak egitea, hauek nazioko ekonomiaren azitze neurtuaren parte izateko kondizioetan: F.P.K.'k bere etsaigoa azaltzen du kapitalismoaren menpeko naziozgaindiko agente batentzat, honek Europa'ren dibisioa baiduke, langilleentzat ain nekosuak diran Elkarrekiko Merkatuaren oraingo politikaren ondorenak gogortuko lituzke eta Frantzia'ko Herriak nahi izandako politika demokratikoa reakzioaren mende den atzerriko gobernuen eskuetan jarriko luke.

Naziogaindiko Europa txikia ez litzake libre izango baizik eta arrisku izugarriarekin espansionista ta rebisionista den Alemania'ren gauditasonaren menpean eta, Tratatu Atlantikoaren bitartez, amerikanoen zaindartzapean. Pakezko eta aurrezape sozialako Europa'ren antolaketa zerean dagoela uste du herriko jendetzaren burruka batuan Europa'ren dibisioaren kontra, kapital aundiaren kontra, Frantzia'n eta Europa'n, mailla guztietako alkar-laguntza zabal batean Europa haundi ta benetakoan.

3.—Iritzi desberdin hauek izan arren, bi formazioak ados dirala adierazten dute Elkarrekiko Merkatua —gaur egun errealdade bat dana— oraingoz kartel, trust eta nazioarteko presioko taldeak menperatuta arkitzen dela. Derrigorrezkoak iruditzen zaizkie:

—mami ekonomiko ta sozial bat ematea, erabat diferentea, langilleen interesekin armonian izango dana; eta proposatzen dute:

—Frantzia'ko Partidu Komunistak Elkarrekiko Merkatua zuzentzen duten instituzioen teknokrata antolaketa, demokratizatuz, ezereztea,

—E.D.S.F.'k agente politiko bat ez sortzerakoan Elkarrekiko Merkatua zuzentzen duten instituzioak pixkana pixkana artzen dijoazten teknokrata kutsua, ezereztu behar dela uste, hoiak demokratatuz.

—Elkarrekiko Merkatuaren organizazioetan sindikatoen (nekazari-nak eta langilleenak) errepresentazioa benetako eskubideekin aseguratzea.

—ifior baztertu gabe nazio bakoitzeko parlamentuko partidu politikoen errepresentazioa aseguratzea.

Elkarrekiko Merkatuaren alde monopolista ta teknokratari frente egiteko bi formazioak zera uste dute, alegia, Herri bakoitzeko langilleen eskubideak indar eta efikazi aundiagoa artuko dutela bere burruka eta solidaridadean.

## II

Bi formazioak uste dute nazioarteko eztabaidetan Frantzia'ren egifialdiki Herriak bere buruaz duten jabetasunean, atzerriko injerentzien kondena-zioan, etsaigoen konponketa paketsuan (bere rejimenari kasorik egin gabe) finkatu behar duela.

1.—*Alemania*.—Ados daudela ikusten dute Alemania'ko Errepublika Demokratata errealdade bat dela ametitzeko eta, hortik asita, honen eta Ale-

mania'ko Errepublika Federala'ren arteko artu-emanak normaltzea Euro-pa'n elkar bizitze paketsuaren faktore bezela. Baita ere konfirmatzen dute frantzes ezkerren oposizioa Alemania'ren armamentu atomikoari eta Oder Neisse'ko muga ezagutzeko borondatea.

—E.D.S.F.'k Alemania'ko Errepublika Federala eta Alemania'ko Errepublika Demokrataren konfederazio ekonomikoaren eraketa proposatzen du.

—F.P.K. Frantzia'k A.E.D. ezagutu behar duela dio.

2.—*Vietname*.—Bi formazioak puntu hauetan iritzi berdiña dutela diote:

—Ipar Vietname'n amerikanoek egiten dituzten bonbardeoen be-realako eta kondizio gabeko suspensioa.

—burrukaren konponketa politiko baten beharra, batez ere orain-go kondizioetan Ginebra'ko akuerdoaren printzipioak beteaz, hauek Vietname'ko Herrian askatasun osoan bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea ematen baidiote.

—Frantzia'k Ipar Vietname'ko Errepublika Demokratikoa ezagutu behar duela.

—F.P.K.'k Ipar Vietname'ko Errepublikak eta Nazioaren Libe-rariorako Frenteak burrukaren konponketarako egindako proposamenduak onartzen ditu, Vietname'ko Herriak bere askatasunaren alde darabilkin burrukaren laguntzaren alde azaltzen da eta baita ere Frantzia'ren aldetik Ipar Vietname'ko Errepublika Demokratikoaren ezagutzea. N.L.F.'k dela Ego Vietname'ko benetako errepresentatzailea dela dio.

—E.D.S.F.'k uste du N.L.F.'k, errepresentatzailea den formazio guztiak bezela, Ego Vietname'n egoeraz diran eztabaidetan parte artu behar duela.

I. V. E. D. eta N. L. F.'en proposamenduak negoziatorako derrigorrezko parte dirala dio.

Konponketa paketsuan I. V. E. D.'n ezagutzeaz gainera zera adierazi behar dela uste du, Eguzkialde Urrutiko alderdi zabal baten neutralizazioa.

3.—*Eguzkialde Urbilla*. Bi formazioak puntu hauetan iritzi berdiña dutela diote:

—konjuntoko konponketa politiko baten beharra.

—era berean Israel'go estadiak izateko duen eskubidea eta arabiar estadien eskubideen errespetuan finkatutako pake bat eguneratzea Seguridade'ko Biltzarrak erabaki zuen bezela, lurraldeak bereganatzea gerlaren bidez onartu ezinikoa dela esaterakoan.

—oraingo burruken konponketa paketsua zuzentzeko palestiniario desherri-ratuen situazioa, Suez'eko kanala ta Akaba'ko kolkoari dagokionez garantiak izango dituna.

—E. D. S. F.'k berriro dio gerla ondorenean okupatutako lurraldeetatik is-raeldar ejerzitua erretiratzea ezin ditekela izan Israel eta arabiar estadien arteko negoziazio baten ondorena baizik, eta iñola ere ez negoziatorako

## AGIRIA

aurre-kondizio bat. Berak uste du pake iraunkor batek zera eskatzen duela ez Israel'ko estatuaren ezagutzea bakarrik, baizik eta bere muga definitiboak zeaztea, 1.948'gn. armistizioa ez baida pakerako muga bat, eta horregatik eskatzen dituzte negoziatutako aldaketak. Berak uste du munduko aundiak elkarrekiko politika bat artu behar dutela armamentoen laisterketa gelditzeko.

=F. P. K.'k agresioaren ondorenean okupatutako lurraldeetatik israeldar ejerzituak bereala ta kondiziorik gabe atera behar duela dio. Pake iraunkor bat eta burrukaren benetako soluzio bat Nazio Batuen Kartaren barruan egin litekela dio, batez ere Herri bakoitzaren bere buruaren jabetasuna errespetatuaz. Era berdinean Palestina'ko arabiar Herriaren eskubide nazionalak garantizatu behar dirala dio.

Euskeratzailea: **Rikardo Arregi**

# Liburuak

José M. GONZALEZ RUIZ: *Creer es comprometerse* (Ed. Fontanella)

Jaungoikoaren monopoliorik inork ez daukala eta Jaungoiko hori gure gainetik dagoela esanaz hasten da José María González Ruiz.

Liburu honako bere asmoa alegin baterena da. Bizi dugun mundu berritu hontan Jaungoikoaren fedeak egiten dizkigun eskabide batzuk aztertzea dala asmo hori esango nuke. Beraz, ikusi ditzazkegun bi puntu interesgarri daude hemen, sinismenaren eragikortasuna eta, bigarrena, munduaren berrialdi laster honen ezaupena.

«Creer es comprometerse» laburra da oso, ta titulu-txikiz josia. Ikusi ditzagun, argigarritzat, izenpuru batzuk: «Patología de la «hispanidad».—El nuevo ritmo de la Historia.—Cirugía del «nacionalcatolicismo».—La nueva frontera de la herejía.—El cristianismo no es un humanismo.—Primacía de la gracia.—Dios no es español.—Tentación de neoconstantinismo.—La Iglesia es una comunidad religioso-profética.—Crisis del «dogma hispánico».—Apertura, sí; aperturita, no. Eta hau dana 18 horrialdeetan emana daukagu. Hiztegi bat dala esan diteke, hain laburrak dira azalpenak.

Sarri asko kristau fedea geldibide bat bezela epaitu dugu. Siñismena zer dan ahazturik (hori da egia), lehengo era zahar batzutan kokatu izan dugu gure fede-ustea. Baiña Idazteuna pittin bat sakondu duan edozeinek daki: fedea ez da behin betirako egin genezaken aukera bat. Fedea ez da segurantzaren lekugunea. Siñismenaren aukera egunero egin behar dugu, momentu bakoitzean, kinka bakoitzean, Jainkoaren Hitza ta bizitza alkar artuaz. Haren Hitzarekin izatasuna juzgatuz. Jainkoak hitzegiten digu, galdetu. Guk, ordea, Delfos'ko Pitonisa bihurtu dugu Jainkoa.

Jainkoa izan da askorentzat mundu honako problema guzien soluzio zuzen ta lehengoa. Gu geu soluzio-billa hasi beharrean, Harengana jo, ta lasai

## LIBURUAK

egon gindezken. Jainkoa ez dezagula «ordezko» bat egin. Erabakia guk artu behar dugunean, geuk egin behar dugu, ez Jainkoak. Edozein prolema gertatzen dala? Esplikazioa, Jainkoak. Esplikatzaille bat onartu dugu, «ordenua» defenditzen duan «zer» bat. Deista batentzako, bai, hori izango da Jainkoa, baiña kristau batentzako, ez. Ezin dezakegu Jainkoa tresna bat egin, gure tamañara bihurtu ere ez, ez domestikatu, ezin dezakegu poltsikoan sartu ta «receta» bat lez erabili. Kristauok liburuo erlijioa daukagu. Idazteuna dugu gidari. Ta han azaltzen dan Jainkoa onartu behar dugu, ez guk sortutakorik.

Jainkoa, «Bestea» da, goi-goikoa, gure gaiñetik eta goitik dagoena. Absolutoa da, osoa, berezkoa. Ditekenik handiena. Ta Jainkoa, grazia da. Eta, hain zuzen, kristauaren siñismena hori da, alegia, dealdeko Jainko hau, «ezertarako» balio ez duen Jainko hau siñistea. Kristianismuaren kondaira aztertuz batera, milla ereji izan dirala, gizaldiak zehar, konturatuko gera. Era askotakoak. Baiña, siñismena gehien mindu dutenak, dudarik gabe, Jainkoaren «grazitasuna» arbuia ta gutxietsi dutenak izan dira, Jainkoa «erabili» egin izan dugu, erabili. Ta González Ruiz'en ustez, Kristautasunaren bihotza «grazia, utsezko Jainko bat onartzea da».

Absolutoa da ta Jainkoa, absolutu-txiki guztiak lur-jo beharra daukate. Absolutotxu guztien etsairik ausartena kristaua da. Idolo ta jainkorde guztien desegillea. Jainkoa handia da, bakarra. Beste «jainkotxu» danak lurrezko anak daukate. Absolutu baten zerbitzari danak, nola beste sasi-absolutu batzuk zerbitzatu? Kristo dala bere Jainko aitortzen eta aldarrikatzen duanak, nola Jainkotzat ar dezake dirua? Jainkoa eta Mammon: alkarren etsai. Jainkorde ta sasi-absolutu hoiak dirala-ta, Jainkoa, benetakoa alegia, izkutatatu, Jainkoaren argia itzali ta illundu, egiten zaigu. Jainkoaren izkutatze hau prolema ikaragarri serioa da, ta hain zuzen gure garuko munduan gertatzen ari da. Gaiak merezi duan seriotasun ta gordintasunaren aurkeztu behar genuke prolema hau. Askorentzat Jainkoa ez da Aita. Morroia da. Ta, hortara, bere semea, gure anaia, nun dagoen galdetzen digunean, asarratu egin ohi gera. Jakiña: morroiak obeditu egin behar du, ez agindu, Guk galdetzen diogunari erantzun, ez alderantzira.

Kain ere asarratu egin zan, ba dakigu, Jainkoaren galdera entzun zuanean: «Nun duzu anaia». Esan dugun bezela, Jainkoaren aurpegia, gure erruz, antz-aldatu ta izkutatatu arren, argi ta garbi jarraitzen du beti bere galderak. Jainkoarekin zuzenezko ta artezko artuemanik ez daukagu. Bitarteko beharrezkoa ezagutzen dugu: gizona da. Alde hontatik, gure egitura askok erabateko aldakuntzaren beharra ba daukatela pentsatzen dut. Gure Jaunartzeak gizonarekin adiskidetasunean eta alkarrizketan jarri behar gaitu.

Azken-epaiko erabaki gaia ere ezaguna zaigu: lagunurkoarenaganako maitasuna ta laguntza. Ezkerraldera ta eskumaldera bia'duak, batzuk eta besteak, galdera bera egiten diote Jainkoari: baiña nun?, noiz?, nori? Ez batzuk eta ez besteek gizon horrengan ez zuten Jainkorik somatu. Eskumaldekoak, ordea, lagunurkoari zerbitzu-egin zioten, ta besteek, ez. Hori da aldea: gizonarekiko jokaera.

Azken epaiko erabaki hontan oñarriturik, noski, González Ruiz'ek diferentzi interesgarri bat egin du: Jainkogabeko siñistunak eta jainkogabeko siñisgabeak. Jainkoa siñistu ez arren, lagunurkoa maitatzen dutenak dira aurre-

nekoek; eta ez bata siñistu ta ez besteá maitatu egiten dutenak, Jainkogabeako siñisgabeak. (Diferentzi hontaz baliatzen da, naizta gerora, momentu batean, siñisgabe ta jainkogabe kontra jarri. Oharkabez ta oituraren indarrez eroritako utsa, nik uste.)

Ikusten danez, ba, naizta Jainkoa gorderik egon (ta esan dugu Jainkoaren izkutatze hau sasi-arrazoi askogatik gertatu ohi dala; hortik datoz jainkogabeak, batzutan), Jainkoaren galderak beti jarraitzen du: Nun da zure anaia? Ta nere anaia hori edozein da, danak eta edozein, ez dut nik aukeratu behar. Samaritar harek etzun aukerarik egin.

Liburuttoaren hirugarren kapitulutik gerokoa, González Ruiz beraren beste liburu batzuen laburpen mehe bat dala esango nuke.

España'ko kristau-bizitzaren egoeraren puntu batzuk kritikatuaz ematen dio hasiera. «Naziotasunaren» ta «Katolikotasunaren» alkarren arteko bategite honek Idazteune'ko Job'ek izan zuan larruketa irau beharko duela pentsatzen du. Garbiketa bat eskatzen du González Ruiz'ek, miñez ta dolorez eginen dan garbiketa, alegia, Jainkoa ez baida españarra.

Erljioarekin egin diren sasi-ekzontzen oiñarria hontan dago: Kristianismua umanismoztat jo dala. Umanismoa, gizona egiteko, eratzeko, moldatzeko, bide ta arau konkretu batzuk da. Teknika bat. Baiña kristianismua ez da teknika. Teknikak oro bere kontura doaz. Teknika hoién eragille ta arnas-emaille da betlere Kristianismua, ez soluzio-emaille bat.

Kristianismua ez da umanismo bat. Eta horregatik, Eliza ere ezin diteke «gizon-egiteko» erabide batzuekin nahastu. Ta gutxiago hartzat artu. Teknikaren testigu da Eliza, esan du Kontzilioak. Eliza libre da, askea, ez dago era honi edo hari lotua. Elizak ez dauka egoera ta jazoera guztientzako formula egin bat: utikan klerikalismoa! Profetismoa da Elizan nagusi.

«Creer es comprometerse» liburutto hau izenpurutik hasi ta azkeneraño eraman-eziña izango da batzuentzat. Beste zenbaitzuentzat, pozgarri. Puntu bizi asko ikuitzen du. Egilleari berari ingurutzen dion errealidadearekin polemikan bezela egindakoa, asarrez. Asarrez eta ongi-nahiez. Profetismoaren indarrarekin (haren segurantzi ta haren arriskuarekin) jokatu du González Ruiz'ek.

Joan Mari TORREALDAY

## OHARRAK

### TXAPELKETA BAT:

29 zenbakian agertu genun **Ekonomika Zientzi Ikastetxean** ospatzeko zan Ipuin Txapelketaren berri.

«Unamuno Saria» hau lehendabizko aldiz egiten zan aurten euskeraz. Eta euskerazko 30 ipuin sartu dira txapelketan, ta lan oso onak diranez, liburu baten argitaratuko bide dituzte.

Txapelketa honen irabazle, Xabier Kintana azaldu da bere "...ta jentilen izpiritua datorke" ipuiarekin. Bigarren, Mikel Intxausti, "Sumarino oria"-rekin. Eta hirugarren, Patrik Urkizu, «Zomorro ta kazkazuri» izeneko ipuiarekin.

### ARPIDEDUNARI:

Arpide-saria reenboltso-bidez eskatzen dugu beti. Hala ere, batzuk «jiroz» bialtzeko oitura daukate. Era hontan egin nahi dutenak, ohar hau gogoan ar dezatela: jiroak hortarako dakarren tokian jarri dezatela argi ta garbi, JAKIN'erako dala, Arantzazu'ko beste aldizkarietara ez dedin joan.

### IDAZLEARI:

GEREDIAGA Alkartearen eskabide bat jaso dugu, azken orduan, "EUSKAL IDAZLEEN I JARDUNALDIAK" gure aldizkarian azaltzeko eskatuaz. Pozik ematen dugu ekinbide honen berri, JAKIN aldizkariaren izpirituarj hain ego-ki datorkionez, gu ere bide hortan baigabiltza lanean.

Jardunaldi hoiek Ertzu'ko Herriko Bibliotekan izango dira, eta garagarrillaren 28 eguerdian asi ta 30'ren eguerdirarte iraungo dute.

Iru gai edo ponentzi hauek izango dira:

- Euskera literarioaren batasuna
- Batasun ori sar-erazteko bideak
- Idazleen alkartasun bat sortzea

Argi gehiago nahi duenak, zuzenbide hontara idatzi dezake: GEREDIAGA - Astola-Abadiano - Vizeaya.